

18. (1487-1490)



18.1. 1487. URTEA

18.1.1. Aizarnazabalen Errezusta eta Etxabeko presak zutik

1487-XI-12an Salamancatik *Errege Katolikoek* Gipuzkoako, Zumaiako eta Zestoako agintariei gutun betearazlea bidali zieten, alde batetik Martin Etxabe, Joan Etxabe (semea), Bekolako Maria Ibañez Altzolaraskoa eta Joan Arteagak (semeak) eta, bestetik, Beltran Ibañez Gebarakoa, Joan Lopez Altzolaraskoa eta Joan Lopez semeak Legazpi ibaian egindako presa eta nasei buruz Errege-kantzelaritzan zuten auziaz. Auziaren gorabeherak jakinarazi zizkien lehenbizi.

Diego Gonzalez de la Sal batxilerrak epaia emana zuen Beltran Ibañez eta lagunenean alde. Aizarnazabalgo Errezustan eta Etxabean Legazpi (oraingo Urola) ibaian zeuden presak eta nasak kendu eta, txalupak ibil zitezten, konportak jar zitzatela agindu zuen. Orduan Maria Ibañez eta Martin Etxaberen taldeak Valladolidera jo zuen Errege-kantzelaritzara, lehenago Zestoako Pedro Fernandez Larretzekoa alkatearen aurrean apelazioa eginda. Haiek ziotenez, Legazpi ibaian gorago eta beherago bazeuden beste presa, nasa eta errota batzuk ere. Gainera, ibaitik baino errazago garraiatuko zituzten gaiak lehorreko errepedetatik.

Ondoren Martin Ruiz Gebarakoak, Beltran Ibañez Gebarakoaren taldearen izenean, eskea egin zuen Kantzelaritzan ibaian txalupekin nabigatzearen alde. Besteak beste, burdin mea garraiatuko zuten ibaian gora, eta itsasontziak egiteko egurra eta mastak eta landutako burdina ibaian behera. Aurkariek, berriz, presarik egon gabe ere ibaian nabigatzerik ez zegoela zioten (ikus [XV. m. 149] agiria).

Auzia puntu horretan zegoela, 1487-V-20an, Aizarnako plazan, Joan Lopez Amilibikoa eskribauaren aurrean Joan Lopez Altzolaraskoa (Bekolako) eta Joan Lopez semea aurkeztu ziren. Gutxi gorabehera urte eta erdi lehenago Beltran Ibañez Gebarakoarekin eta beste batzuekin elkarturik auzia jarri zieten

Martin Etxaberi, Joan Etxabe semeari eta Maria Ibañez Arteagakoa alargunari, Legazpi ibaiko nabigazioa zela eta. Bertan txalupa bidez egurra, burdina eta beste zenbait gai garraiatu nahi omen zituzten. Berez, ordea, haiek auzitara eramateko beste arrazoi batzuk egon omen ziren, eta Joan Lopez aita-semeek auzitik erretiratzeko agiria eta zina egin zituzten.

Ibaian presarik eta inongo oztoporik ez balego ere, ez zegokeen nabigatzerik. Joan Lopez Altzolaraskoa aitonaren garaian ere gai haiek lehorretik, errepedetatik, garraiatzen omen ziren Beduako eta Oikiako erreterietaraino. Agiri hartan lekuko izan ziren Otxoa Altzolarats, Pedro Altzolarats anaia eta Lope Altzolarats apaiza (ikus [XV. m. 148] agiria).

Jarraian Errege-entzutegikoek epaia eman zuten, Diego Gonzalez batxilerraren epaia deuseztatuz eta Martin Etxaberen aldeari arrazoi emanaz. Ondoren Beltran Ibañez Gebarakoaren aldeak eskea egin zien epaileei iritziz aldatu eta beren epaia alda zezaten. Berriz ere alde bakoitzak bere arrazoiak azaldu zituen. Batzuentzat presak kenduta Zestoa eta Zumaiari mesede egiten zitzaizen ibai publikoan nabigatuta egurrak, burdin mea, landutako burdinak eta altzairuak erraz garraia zitezkeelako. Errezusta parean, gainera, lehen ibia omen zegoen, eta presa eginda arriskutsua omen zen. Pertsona bat hil ere egin omen zen. Ibaian gorago eta beherago zeuden presak baxuak omen ziren, edo, bestela, konportak omen zituzten.

Orduan Errege-kantzelaritzako presidenteak eta epaileek Beltran Ibañez Gebarakoarentzat, honen taldekoentzat eta beste edozein Kontzeju edo pertsonarentzat gutuna egin zuten, gai hartan eskubideren bat zutela uste bazuten Joan Martinez Uribarrikoa eskribauak prozesua eman ziezaien.

Ondoren Martin Etxaberen aldeak berriz ere eskea egin zuen Diego Gonzalez batxilerraren epaia bazter



18.1. irudia.
Aizarnazabalgo
Errezustabekoa.

gera zedin. Ibaian arriskurik gabeko ibiak eta zubia ere ba omen zeuden. Arrazoi haiei Fernando Gebarak (Beltran Ibañezen semeak) aurka egin zien, ibaiko nabigazioaren alde eginez eta lehengo arrazoiak azalduz. Ura ugari omen zuen ibaiak eta marearen uhinak iristen omen ziren. Martin Etxaberen aldeak Fernando Gebarak emandako arrazoiak aurka egin zien.

Epaileek, haiek denak aztertuta, erabakia hartu zuten: epe baten barruan alde bakoitzak bere frogak eta testigantzak aurkeztuko zituen. Halaxe aurkeztu zituzten epearen barruan. Martin Etxaberen aldeak zioenez, presak eta errotak haien lurren parean zeuden, marea ibaian legoa-erdia beheragoraino baizik ez zen iristen, etab.

Beltran Ibañez Gebarakoaren aldeak zioenez, aurkariaren testigantza bat Joan Lopez Amilibikoa eskribauak jaso eta sinatuta heldu zen, baina eskribau hark gezurrezko eskriturak eginak zituen eta, horregatik, epaileek hiltzera kondenatu zuten. Beraz, testigantza hark ez zuen balio. Gainera, ibaia nabigagarria zen edo ez ikustera Gipuzkoako korrejidorea bidal zeza-tela eskatu zuen.

Azkenean epaileek behin betiko epaia eman zuten, berrikuspen-mailan, Bekolako Maria Ibañez Altzolaraskoa, Joan Arteaga (semea), Martin Etxabe eta aba-

rren alde, eta Beltran Ibañez Gebarakoaren aldearen kontra. Auzi-gastuak ere (13.194 marai) Beltranen taldeak ordainduko zizkien aurkariari. Ordaindu nahi ez bazuten, ondasunak bahitu eta enkantean salduko zituzten (ikus [XV. m. 149] agiria).

Beliteke Maria Ibañez Altzolaraskoa eta Joan Arteaga semea Errezustako errotaren jabe izatea. Zumaiako auzotar azaltzen dira (Martin Etxabe eta semea ere bai) aurreko urtean (1486an) Aizarnazabal eta Oikia Zumaiako jurisdikziora itzuli zirelako.

1486. urtera arte Zestoako parte ziren Errezustako eta Etxabeko presak ez botatzea erabaki ondoren, Aizarnazabago "Azkenportu" (Ozpide edo Arrozpide ondoan, Oikiako mugan, dagoena) benetan izango zen Legazpi edo Urolako azken portua.

18.1.2. Maria Ibañez Altzolaraskoa zorrak kobratu ezinik

Maria edo Mariana Ibañez Altzolaraskoa (Bekolako), Matxin, Gartzia eta Katalina ume txikien ama eta Martin Ibañez Arteagakoaren alarguna, 1487an bi urte inguru lehenago hildako senarrak maileguz emandako diruak eta kintal burdinak kobratu ezinik ibili zen. Hirutan jo behar izan zuen Errege-kantzelaritzara zordunek ordain ziezaioten.

1487-III-15ean Salamancatik *Errege Katolikoek* Gipuzkoako agintariei eta Zestoako ermandade-alkateari eta alkate arruntari gutun betearazlea bidali zieten. Errege-entzuteagian auzia ipini zuen Maria (edo Mariana) Ibañez Altzolaraskoak (Martin Ibañez Arteagakoa zumaiarraren alargunak) bere izenean eta seme-alaba adingabeen izenean, Joan Olloki etxejaunaren, San Joan Txertudi olagizonaren eta hauen laguntzaileen aurka.

Mariana alargunak zioenez, lau bat urte lehenago (1483an edo) Martin Ibañez Arteagakoa senar zenak Bandako marka zuten urrezko 300 dobla (Gaztelakoa) eman zizkien maileguz Joan Olloki, San Joan Txertudi eta hauen laguntzaileei. Zor hura ordain zezaten askotan eskatu omen zien, baina, erantzunik ezean, azkenean Errege-entzutegira jo zuen. Orduan zordunen prokuradorea azaldu zen, eta auzi hura Debako alkateak erabakitzea zela zioen. Gainera mailegu hura ez omen zen egiazkoa, gezurrezkoa baizik (itxura besterik ez omen zen). Hartzekotan, beldurrez hartuko omen zuten obligazio hura, eta, gainera, lukurreriazko kontratuak izaten omen ziren haiek.

Errege-entzutegikoek, bi aldeek ziotena aztertuta, epaia eman zuten. Auzitegi hark erabakiko zuen auzia. Bi aldeei, zin eginarazita, epea ezarri zieten

beren frogak aurkez zitzaten. Ondoren, behin betiko epaia eman zuten. Bertan epaileek ziotenez, Bekolako Maria Ibañez Altzolaraskoak ongi frogatu zituen bere arrazoiak, eta aurkariak ez. Beraz, Joan Olloki eta San Joan Txertudi zorra (urrezko 300 dobla) eta auzi-gastuak (5.247 marai) hogeii eguneko epearen barruan ordaintzera kondenatu zituzten. Bestela ondasunak bahitu eta enkantean saldu egingo zizkieten (ikus [XV. m. 145] agiria).

1487-III-23an Salamancatik *Errege Katolikoek* Gipuzkoako Probintziako agintariei gutun betearazlea bidali zieten Maria Ibañez Altzolaraskoak (Martin Ibañez Arteagakoaren alargunak) eta bere seme-alabek zuten beste auzi bateko behin betiko epaia exekuta zezaten.

Maria Ibañez alargunak zioenez, hiru bat urte lehenago Martin Ibañez senar zenak 446 kintal burdina maileguz eman zizkien Joan Ruiz Arrazubikoa aiarra-ri, Martin Lasarte mazolariari eta Usurbilgo Joango Saria gazteari. Hauek zorra ez zioten ordaintzen, eta Errege-kantzelaritzara jo zuen justizia eske (bi urte lehenago Martin Ibañez Arteagakoa hil egin zen). Zorraren erdia Maria Ibañezi zegokion, beste erdia seme-alabei, eta guztien izenean eskatzen zuen amak zor osoaren balioa.



18.2. irudia.
Zumaiako Arteaga
baserria.

Errege-entzutegikoek dei egin zieten zordunei, epea eman ez, epaitegira aurkez zitezten, baina ez ziren azaldu eta ez zuten prokuradorerik izendatu. Maria Ibañez Altzolaraskoaren prokuradorearen bidez auziak aurrera egin zuen, eta epaileek erabakia hartu zuten: Maria Ibañezen aldeari eta zordunen aldeari bederatzia eguneko epea eman zieten beren frogak eta testigantzak eraman zituzten. Zordunek ez zuten ezer egin, eta Maria Ibañezek bere eskriturak eta frogak erakutsi zituen.

Azkenean Errege-kantzelaritzakoek behin betiko epaia eman zuten, zordunen aurkakoa: 446 kintal burdina eta (auzi-gastuengatik) 5.493 marai ordaindu beharko zizkieten ama eta seme-alabei Joan Ruiz Arrazubikoak, Martin Lasartek eta Joango Saria gazteak. Hamabost eguneko epean ordaintzen ez baldin bazuten, ondasunak bahitu eta enkantean saldu egingo zizkieten (ikus [XV. m. 147] agiria).

Egun eta leku beretik beste gutun betearazle bat ere bidali zuten *Errege Katolikoek*, aurrekoaren ia berdina. Alde bakarra Martin senar zenak 268 kintal burdina maileguz Joan Ruiz Arrazubikoa aiarrari, Antso Segurola aiarrari eta Jordana Oribar oriotarrari maileguz ematea izan zen.

Azkenean Errege-kantzelaritzakoek behin betiko epaia eman zuten, aurrekoaren berdina, hau da, zordunen aurkakoa: 268 kintal burdina eta (auzi-gastuengatik) 5.493 marai ordaindu beharko zizkieten ama eta seme-alabei Joan Ruiz Arrazubikoak, Antso Segurolak eta Jordana Oribar andreak. Hamabost eguneko epean ordaintzen ez baldin bazuten, ondasunak bahitu eta enkantean saldu egingo zizkieten (ikus [XV. m. 146] agiria).

18.1.3. Batzar Nagusiak Tolosan, Gipuzkoako korrejidorea, etab.

Gipuzkoako Batzar Nagusiak Tolosan bildu ziren 1487. urteko apirilean, eta bertan arantzela prestatu zuten¹. Esan beharra dago Gipuzkoak 1487. urteaz gero korrejidorea iraunkor eduki zuela, hau da, urte

guztietan jarraian, eta ez, ordura arte bezala, urte batzuetan bai eta beste batzuetan ez². 1487. urtean Gipuzkoako korrejidore Juan Ribera zen, eta ordezkio Diego Santxez Alfarokoa³. Korrejidoreak egoitza non eduki behar zuen erabakitzeko gorabeherak izan ziren. Hasieran korrejidoreak berak aukeratzen zuen zein herritan egongo zen⁴. *Errege Katolikoek* 1482-VIII-23an Malagan izendatu zuten Juan Ribera kapitaina (Montemayorko jauna) Gipuzkoako korrejidore.

Urte hartan, ordea, errege-erreginek beste agiri batzuk ere egin zituzten Gipuzkoarentzat. 1487-I-20an Salamancan mairuen aurkako Gurutzadaz zedula bidali zuten. 1487-II-5ean Arevalotik agindua bidali zieten Domenjon Gonzalezi eta Bustamanteri Probintzian 1.800.000 maraiko mailegua bana zezaten. 1487-III-10ean Valentziatik errege-erreginek Gipuzkoari oinezko 600 soldadu eskatu zizkieten. 1487-VIII-18an, berriz, *Errege Katolikoek* Gipuzkoako Probintziari Malaga konkistatu egin zutela jakinarazi zioten. Errege-kontseilukoek, bestalde, 1487-VII-24an Burgostik Hondarribiko gazteluko arduradun zen Joan Ganboari agindua eman zioten: Gipuzkoan partikularrek ezingo zituzten galerak hornitu lehenbizi fidantzak ematen ez baldin bazituzten⁵.

Urte-amaieran, 1487-XII-7an, Zaragozatik *Errege Katolikoek* agindua bidali zieten Debako Kontzejuko-ei. Debako probestu izendaturik zuten Pedro Idiakaitz (Gorteko logela-zaintzailea), Joan Fernandez Irarrazabalgoa (lehengo probestua) hil zenean. Pedro Idiakaitz azkoitiarrak zioenez, ordea, Debako Kontzejuak ez zizkion ordaindu nahi zegokion soldata eta gaine-rako eskubideak. Gipuzkoako Juan Ribera korrejidore eta kapitain nagusiak arantzel berria argitaratu arte, Pedro Idiakaitzi aurreko probestu zenari ematen ziotena ordaintzea agindu zuten⁶.

Bestalde, historialari gehienek Getariako Joan Sebastian Elkano 1476. urtean jaio zela badiote ere, Jose Arretxe azpeitiarrak 1487. urte ingurukotzat jotzen du⁷.

Bizkaian, berriz, Garci Lopez Chinchilla-koa lizentziatuak, Bizkaiko hiribilduetako ordezkariekin

bildurik, Ordenamendua onartu zuen. Urte batzuk lehenago, 1483an, *Errege Katolikoek* Bilboko bandoak suntsitzeko ahalordea eman zion, eta haren ondorio ziren 1487ko Ordenantzak⁸.

Ordenantza horiek bizkaitarren kaparetasunaz eta zerga-ordainketaz argibideak ematen dituzte. Gaztelako kapareek ez zuten zergarik ordaintzen, alkabala izan ezik. Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban ere alkabala ordaintzen zen, baina ez lurralde guztietan. Aiaran, Aramaion eta Oñatin lortu zuten ez ordaintzea, eta Bizkaian ez zuten inoiz ordaindu. Chinchillaren

Ordenantzetan aipatzen da hori; baita apezpikuak Bizkaiko lurretara sartzea debekaturik zuela ere. Bizkaiko hogeita bat hiribilduek, ordea, “pedido” deitutako zerga ordaintzen zuten XV. mendearen hasieraz gero. Lur zabaletan, berriz, jaunak kobratzen zituen nekazarien zergak⁹.

Durangon, bestalde, 1487. urtean artean “fratice-lli” sektakoak ba omen ziren, hau da, Alonso Mela edo Mellakoa fraideak sortutako mugimendu heretikoaren jarraitzaileak (ikus 1442 eta 1444. urteei dagozkien 12.2.1. eta 12.4.1. atalak).

18.2. 1488. URTEA

18.2.1. Joan Aizarnaren auzia

Errege Katolikoek 1488-I-26an Zaragozatik agindua bidali zioten Nafarroako muga kapitain jeneral eta Gipuzkoan korrejidore zen Joan Riberari. Donostiako probestu Migel Martinez Engomezkoak Ermuko auzotar Joan Aizarnarekin auzia zuen Ermuko eta

Donostiako alkateen aurrean. Errege-kontseiluak Diego Arias Anaia batxilerra bidali zuen Donostiara auzi hartaz ardura zedin, baina ofizio hartako ardura utzi zuenez gero, auziaz Joan Ribera jaunak arduratu behar zuen. Joan Aizarnak ere epaile komisarioa eskatu zuen, probestuarekin batera entzun ziezaion. Auzia Gorteko alkate Diego Proañoren eskuetatik



18.3. irudia.
Aizarnako bista.

Joan Ribera korrejidorearen eskuetara pasatzea agindu zuten. Korrejidoreari ahalmena eman zioten epaia (edo epaiak) eman eta isunak ezartzeko (ikus [XV. m. 150] agiria).

Agirian aipatzen den Ermuko Joan Aizarna jatorriz aizarnarra zelakoan gaude. Joan Aizarna pilotua 1516-II-15ean azaltzen da, adibidez, Blas Artazubiagaren protokoloetan¹⁰.

Egun batzuk geroago, 1488-II-4an Zaragozatik *Errege Katolikoek* beste agindu bat bidali zioten Gipuzkoako korrejidore Joan Riberari, lehengoaren antzekoa. Donostiako Migel Martinez Engomezkoa probestuak Joan Aizarna eta honen emazte Katalina Altagarekin auzia zuen, probestuak errentan emandako burdinola bategatik. Auziaren ardura lehenbizi Diego Arias Anaia batxilerrak eduki zuen, eta gero Diego Proaño lizentziatuak (Gorteko alkateak), baina errege-erreginek Joan Riberaren (Gipuzkoako korrejidorearen) esku utzi zuten. Honek bi aldeei entzun eta epaia eman behar zuen. Horretarako ahalordea eman zioten; baita isunak ezartzekoa ere (ikus [XV. m. 152] agiria).

18.2.2. Beltran eta Fernando Gebara Joan Lopez Amilibikoaren aurka

1488-I-26an Valladoliden *Errege Katolikoek* agindua eman zioten Gorteko Diego Martinez Arabakoa lizentziatuari, Zestoako Beltran Gebarak (edo Altzolaratsek) eta Joan Lopez Amilibikoa eskribauak zuten auzian parte har zezan. Beltranek salatu egin zuen Joan Lopez eskribaua, eskritura faltsuak egin zituela eta. Gorputza zigortzea merezi zuela zioen. Eskribauak, berriz, bere burua errugabetzat jotzen zuen. Beltranek ezeren oinarririk gabe hura gogaitzeko salatu zuela zioen.

Errege-erreginek Diego Martinezi bi aldeen lekukoen testigantzak jasotzera Gasteiza edo behar zen lekura joan zedila agindu zioten. Lekukoen testigantzak nola jaso behar zituen, zenbateko soldata kobratu behar zuen eta beste zenbait gai zehaztu zioten.

Ahalordea ere eman zioten lan horretarako, eta, behar izanez gero, isunak ipintzeko ere bai (ikus [XV. m. 151] agiria).

Auzi berari jarraipena emanez, *Errege Katolikoek* 1488-IV-20an Valladolidtik gutun betearazlea bidali zieten Gipuzkoako ermandade-alkateei eta haien gainerako erreinuetako alkateei. Zestoako Fernando Gebarak salatu egin zuen Gortean Zestoako Joan Lopez Amilibikoa eskribaua, zenbait eskritura faltsu egin eta beste batzuk aldatu egin zituelako. Fernando Gebarak eskribaua Gortera deitu eta aurkez zedila eskatu zuen. Epailleek 30 eguneko epea eman zioten eskribauari aurkez zedin.

Joan Lopezek alkate epaileen aurrean ukatu egin zituen salaketak, eta epailleak gaizki informatu zituztela zioen, Fernando Gebarak gorroto ziolako. Gainera, eskribaua errege-erreginen alkateengana eraman baino lehen, lehen auzialdia Gipuzkoako ermandade-alkateen aurrean egin behar zen. Fernando Gebarari auzi-gastuak halako bi ordainaraztea eskatu zuen.

Orduan Beltran Altzolarats edo Gebara (Beltran Ibañez Gebarakoaren semea) azaldu zen anaia Fernando Gebararen prokuradore gisa. Hark zioenez, Zestoako Joan Lopez eskribauak faltsukeria asko egin zuen eskrituratan, eta eskuineko eskua moztera kondenatu zuten. Epai hura izan ondoren, ordea, eskribauak bere lanean jarraitu omen zuen, horretarako eskubiderik eduki gabe. Maria Ibañez Arteagakoarekin Beltran Ibañez Gebarakoa aitak izandako auzi batean faltsutu omen zituen, besteak beste, eskriturak, eta Getariako ermandade-alkateak zigortu omen zuen.

Joan Lopez Amilibikoak bere aldeko arrazoiak eman ondoren, epailleek erabakia hartu zuten. Fernando Gebara bera alkateen aurrera azaldu ez zelako, eskribauak egindako auzi-gastuak ordaindu egin beharko zituen, eta epaileen hurrengo lehen entzunaldian alde bakoitzak bere frogak aurkeztu beharko zituen.

Fernando Gebararen prokuradore Martin Ibañez Untzillakoak bere eskea egin zuen, eta, bi aldeen

arrazoiak aztertuta, behin betiko epaia eman zuten: Fernando Gebarak Joan Lopez eskribauari auzi-gastuak ordainduko zizkion (1.446 marai), Amilibikoa errugabetzat jo zutelako. Bederatzi eguneko epean ordaintzen ez bazituen, ondasunak bahitu eta enkan-tean saldu egingo zizkioten. Ondasunik ez bazeukan, preso hartuko zuten, eta ez zuten askatuko zor osoa ordaindu arte (ikus [XV. m. 153] agiria).

Auzi beraz *Errege Katolikoek* Valladolidtik 1488-XII-16an gutun betearazlea bidali zieten Gipuzkoako agintariei eta haien erreinu eta jaurgoetakoei, Zestoako Fernando Gebarak eta anaia Beltran Gebarak (edo Altzolaratsek) Joan Lopez Amilibikoa Zestoako eskribauarekin zuten auziaren prozesu osoa zehatza-go jakinaraziz.

Gebara anaiek eta Fortun Gomez Agredakoa dokto-re fiskalak Gorte eta Kantzelaritzan salatu egin zuten eskribaua eskritura faltsuak egin zituelako. Kondenatu egin zuten Joan Lopez, eta Gortera dei eginda bera etortzea eskatu zuten epaia betearaz zezaten.

Joan Lopez Amilibikoa Gortera joan zen eta han eskea egin zien alkateei. Aske utzi behar zuten, eta Fernando Gebara auzi-gastuak halako bi ordaintzera kondenatu, maltzurkeriaz jokatzan ari zelako eta auzira Gortera joan ez zelako.

Fernandoren Beltran Gebara anaia erantzuna eman zuen. Joan Lopezek eskritura faltsuak egin eta beste batzuk aldatu egin zituelako, eskuineko eskua moztera kondenatu zuten, baina gero ere Amilibikoak eskribau-lanak egiten jarraitu zuen, horretarako esku-biderik izan gabe, 1485, 1486 eta 1487. urteetan. Batez ere Beltran Ibañez Gebarakoak, anaien aitak, Maria Ibañez Arteagakoarekin eta haren lagunekin izandako auzian (Legazpi ibaiko nabigazioaz izanda-koan seguru asko) faltsutu omen zituen eskriturak. Orduan Getariako ermandade-alkateak Joan Lopez kondenatu egin zuen. Aitari eragindako auzi-gastuen-gatik 100.000 marai ordainarazi eta epaia gorputzean (eskua moztuta) eta ondasunetan betearaztea eskatu zuen. Preso eduki behar zuten, eta ez zuten inola ere askatu behar.



18.4. irudia. Amilibia (Maiordomokoa).

Joan Lopezek Beltran Gebararen eskariari aurka egin zion. Eskribaua Zestoakoa zen eta hiribilduak bere alkatea zuen, eta hark eta Gipuzkoakoek zuten eskumena gaia lehen auzialdian epaitzeko. Beltran eta Fernando Gebara anaiek gorroto bizia zioten, hil nahi izaterainokoa, eta gorrotoagatik eraman zuten auzitara. Joan Lopezek zioenez, eskribau-titulua zeukan eta Gipuzkoa osoan zekiten hori. Gainera, hark ez zuen eskriturarik faltsutu, ez eta agiri faltsurik egin ere. Eskribauaren aurka emandako epaia, bestalde, deuseztaturik zegoen, epaileek txartzat eman zutelako. Deuseztatzen zuen epaia Gorteko alkateei aurkeztu zien. Fernando Gebara salatzailea, gainera, ez zen Gortera joan eta auzi-gastuak kobratu egin behar zitzaizkion. Gai harengatik berriz auzitara jotzea ere debekatu egin behar zitzaion “betiko isiltasuna” ezarrita.

Fiskalak erantzun egin zion Joan Lopezi, ordura arte eskribauaren aurka erabilitako argudioak errepi-katuta. Amilibikoa Gortean zegoenez gero, hango alkateek auzian eskumena zutela zioen. Joan Lopezek berriz ere bere aldeko arrazoiak azaldu zituen.

Gorteko alkateek auzia amaitutzat jo eta epaia eman zuten: Beltran Gebarak eta fiskalak, batetik, eta Joan Lopezek, bestetik, beren froga eta testigantzak eraman behar zituzten emandako epearen barruan. Alde bakoitzak halaxe egin zuen, eta Beltranek nahiz fiskalak akatsak aurkitu zizkieten Joan Lopez Amilibikoa aurkeztutako testigantzei. Haiek argitu eta beharrezko azterketak egin ondoren, Gorteko alkateek behin betiko epaia eman zuten: Joan Lopez eskribauak ongi frogatu zuen errugabea zela, eta Beltran Gebarak nahiz fiskalak ez zituzten beren salaketak behar bezala frogatu. Eskribaua aske geratu zen. Auzi-gastuak ez zizkieten inori egotzi. Beraz, bakoitzak bereak ordainduko zituen (ikus [XV. m. 171] agiria).

18.2.3. Eskribau berriak Zestean

Errege Katolikoek 1488-IX-23an Valladoliden beren erreinu eta jaurgoetako agintari guztiei agiria bidali

zieten, Zestoako Joan Ibañez Amilibikoa eskribau eta notario publiko izendatu zutela jakinaraziz.

Eskribauaren eskubide eta betebeharrak zehaztu zizkieten Joan Ibañezi. Eskrituratan data (eguna, hila eta urtea), lekua, lekuko enenak eta eskribau-ikurra (berea) ipini beharko zituen (ikus [XV. m. 169] agiria).

Joan Ibañez eskribau berria Joan Lopez Amilibikoa eskribauaren senide izan zitekeen.

Errege-erreginek bi hilabete geroago Valladoliden agiria sinatu zuten Zestoako Joan Perez Artazubiagako eskribau eta notario publiko izendatuz. Eskribauaren eskubide eta betebeharrak zehaztu zizkieten, Joan Ibañezi bezalaxe, Joan Perezi. Eskrituratan data (eguna, hila eta urtea), lekua, lekuko enenak eta eskribau-ikurra (berea) ipini beharko zituen (ikus [XV. m. 170] agiria).

18.2.4. Agireta eta Gorostiolako saroiak eta Beltran Ibañez Oñazkoa

1488-VIII-6an, Azpeitian, Beltran Oñatzek (Loiolako jaunak) eta Martin Gartzia Antxietakoak, Azpeitiko auzotarrek, ordainagiria eman zieten Zestoako alkate, probestu eta Kontzejukoei. Kontzejukoak ez zeuden Azpeitian agiria egin zuten unean, baina Zestoak ordaindurik zituen 1.100 florin arrunt. Florinak 50 marai zuri balio zituen. Gorostiola eta Agireta saroiak Beltrani erosi zizkionean (1486-III-25ean, ikus [XV. m. 127] agiria), 368 florin eman zizkion Beltran Oñatzi, eta 732 florin Martin Gartzia Antxietakoari. Bi hartzaileek ordainagiria egin zioten Zestoako Kontzejuari, bermeak emanez, Joan Martinez Ibañeta eskribau zestoarraren eta Joan Lopez Egibarkoa eskribau azpeitiarraren aurrean. Haiek izan ziren lekuko: Domingo Ibañez Zuridikoa (Guridikoa?), Migel Martinez Olaberrietakoa eta Pedro Ubilla azpeitiarrak (ikus [XV. m. 162] agiria).

Urte berean abenduaren 5ean Errege-kontseiluak agindua bidali zion Diego Santxez Alfarokoa batxile-



18.5. irudia. Etorrako Gorostiola aldea.

rrari (Gipuzkoako korrejidorearen ordekoari), Martin Iñigez Saroberrikoa zenaren ondasunak Beltran Oñatzek hartu zituelako eta Martin Saroberri azpeitiarrak han eskubideak zituelako⁵.

18.2.5. Joan Beltran IV.a Iraeta eta Joan Intsausti erretorearen arteko auzia

Aurreko urteetan Joan Beltran IV.a Iraetaren eta Joan Intsausti erretorearen Aizarnazabalgo patronatuaz zegoen auzi luzeak aurrera egin zuen 1488. urtean ere. Uztailaren 1ean Valladoliden iraetarraren prokuradore Frantzisko Santestebanek eskea egin zuen Errege-kantzelaritzan. Hark zioenez, garbi geratu zen Joan Beltranek eta haren aurrekoek erregeengandik jasotako mesedeen bidez zeukatela Aizarnazabalgo elizaren patronatua, bertako erretoreak izendatzeko apezpikuari aurkezteko eskubidea eta, halaber, hamarenak zein gainerako opalkuntza eta errentak jaso eta eramatekoa.

Eliztarrak elkartu egin ziren Joan Beltran III.a Iraetari patronatua kentzeko asmoz. Haien lekukoen testigantzak ez ziren fidagarriak, eta Joan Lopez Amilibikoa eskribaua ere ez. Beraz, aurkariak kondena zitzatela eskatu zuen. Epaileek eskabidearen kopia beste aldeari ematea agindu zuten, aurkariaren prokuradoreak (Toribio Villalba eta Pedro Arriola) bertan zirela (ikus [XV. m. 154] agiria).

Hiru egun geroago, 1488-VII-4an, Valladoliden, iraetarraren prokuradore Joan Gartzia Baldakoak eskea egin zien Errege-kantzelaritzako epaileei. Beste aldearen prokuradore Pedro Arriola eta Toribio Villabak ez zituzten beren ahalorde-agiriak eman zitzaizen hiru eguneko epean aurkeztu, eta auzi-gastuak beste aldeari ordainaraztea eta auzia ez luzatzea eskatu zien (ikus [XV. m. 155] agiria).

Egun eta leku berean zioenez, iraetarraren prokuradore Frantzisko Santestebanek egun batzuk lehena-

go eskea egina zien Errege-kantzelaritzako epaileei. Beste aldeak ordea, ez zuen erantzun emandako epean, eta auzia amaitutzat jo eta auzi-gastuak beste aldeari egozte eskatu zuen.

Errege-entzutegikoek beste aldearen Pedro Arriola eta Toribio Villalba prokuradoreei berri eman zieten, baina hauek ahalordea eskuratzeko denbora behar zuten. Hiru egun eman zizkieten horretarako. Bestela auzi-gastuak haiek ordaindu beharko zituzten (ikus [XV. m. 156] agiria).

1488-VII-8an Valladoliden Joan Intsaustiren prokuradoreek (Pedro Arriola eta Toribio Villalbak) epaileei 40 eguneko epea eskatu zieten, Zestoa Valladolidtik urrun zegoelako, beren ahalorde-agiriak aurkez zituzten. Epaileek baiezkoa eman zieten (ikus [XV. m. 157] agiria).

1488-VIII-1ean Joan Intsaustiren Pedro Arriola prokuradoreak agiria aurkeztu zuen Errege-entzutegian. Hark zioenez, beren lekukoen testigantzak epaileek azterturik zituzten eta ongi frogatuta zegoen elizako patronatua eliztarrena zela eta Joan Intsausti erretore zuzen izendatu zutela. Joan Beltran III.arekin Intsausti erretoreak Zaragozan artzapezpikuaren aurrean auzia eduki zuen eta honek irabazi zuen.

Joan Beltran III.ak eta Iraetako lehenagoko jaunek hamarrenak eraman baldin bazituzten, errentan hartu zituztelako izan zen. Gainera, Joan Beltran IV.ak aurkeztutako lekuko batzuk emakumeak ziren, eta beste batzuk Joan Intsaustiren etsai amorratuak. Beraz, haien testigantzek ez zuten balio.

Ondorioz, Pedro Arriolak bere aldea errugabetzat jotzea eta beste aldea kondenatzea eskatu zuen. Epaileek agiriaren kopia beste aldeari eman eta lehen entzunaldian erantzun zezatela eskatu zuten (ikus [XV. m. 158] agiria).

1488-VIII-5ean Joan Intsaustiren Pedro Arriola prokuradoreak agiria aurkeztu zuen Errege-entzutegian. Hark zioenez, Joan Beltranen aldeak epearen

barruan ez zien erantzun hark egindako eskeari. Beraz, auzia amaitutzat jotzea eskatu zien epaileei (ikus [XV. m. 159] agiria).

Egun eta leku berean Joan Intsaustik berak jakinazaki zuenez, bi urte lehenago Pedro Arriola, Toribio Villalba eta beste prokuradore batzuei ahalordea eman zien, baina prozesuan zehar galdu egin zen. Beraz, Joan Intsaustik bere izenean eta eliztarren izenean berriz ere ahalordea eman zien aipatutako prokuradoreei eta haiek ordura arte egindako lana ontzat eman zuen.

Joan Intsaustik berak hartu zituen orduan bere buruaren eta Aizarnazabalgo eliztarren prokuradorelanak. Lekuko hauek izan ziren: Debako Lope Zelaia ontzi-maisua (seguru asko Arroako Areitzagazelaikoa), Otxoa Arteaga, Joan Lopez Amilibikoa eta honen seme Joan (ikus [XV. m. 160] agiria).

Egun berean Joan Beltran IV.aren Frantzisko Santesteban prokuradoreak Errege-entzutegian eskea egin zuen. Auzia 40 egunerako etentzat eman zuten eta Joan Gartzia Baldakoa joan egin zen Gortetik, baina aurkarien prokuradoreek eskea egin zuten auziari jarraipena emateko. Santestebanek 40 egun bete arte auzia geldirik mantentzea eskatu zuen. Epaile entzuleek ontzat eman zuten eskabidea (ikus [XV. m. 161] agiria).

1488-VIII-26an Valladoliden, erretorearen prokuradore Pedro Arriolak zioenez, auzian izandako 40 eguneko etenaldia igaro zen. Epe horretan Joan Intsaustiren prokuradoreek ahalorde-agiriak ekarri behar zituzten. Agindua bete zutelako, auziari jarraipena ematea eskatu zuen. Epaile entzuleek eskabidearen kopia beste aldeari ematea agindu zuten, hurrengo entzunaldian erantzun zezaten (ikus [XV. m. 163] agiria).

1488-VIII-29an, erretorearen prokuradore Pedro Arriolak zioenez, egun batzuk lehenago auziari jarraipena emateko eskea egina zuen. Beste aldeari epea eman zioten erantzuteko, baina erantzunik jaso ez

18.6. irudia.
Azkoitiko Balda
etxea.



zutenez gero, auzia amaitutzat jotzea eskatu zuen (ikus [XV. m. 164] agiria).

Egun eta leku berean Joan Beltran IV.aren prokuradore Frantzisko Santestebanek zioenez, Pedro Arriolak egindako eskea ez zuten kontuan hartu behar. Beste elizateetan ere patroiarri errentan hartzen zizkiotene lizakoh amarrenak, haiek asoe ta emateko zerbitzua eginez. Patronatua erregeena zen, eta haien bidez jaso zuten Iraetako jaunek, beren zerbitzuak koroari eginda, patroiti-titulua. Beraz, auzi hartan koroa zen kaltetuena. Horrez gain, errentamendu-agiria notario apostolikoak sinatua zenez gero (eta ez

errege-eskribauak) ez zeukan baliorik auzi hartan.

Epaille entzuleek kopia beste aldeari eman eta hurrengo entzunaldian erantzun zezatela agindu zuten (ikus [XV. m. 165] agiria).

1488-IX-12an, erretorearen Pedro Arriola prokuradoreak iratarraren prokuradore Frantzisko Santestebanek aurreko hilean epaille entzuleei aurkezturiko agiriri aurka egin zion. Berak bere arrazoiak ongi frogatu zituen, eta Joan Beltranen aldeak ez. Ordura arte elizako patroia bera zela esan zuten, baina azkeneko agirian zioenez, patronatua errege-

erreginena omen zen. Beraz, ez zitzaion jaramonik egin behar.

Pedro Arriolak aurkeztutako eskritura eskribau publikoak sinatutakoa zen eta guztiz baliozkoa. Eskribau apostolikoa izan balitz ere, baliozkoa zatekeen, hamarrenen gaia epaile apostolikoaren aurrera aurkeztu behar zelako.

Epaile entzuleek beste aldeari kopia eman eta hurrengo entzunaldian erantzun zezatela agindu zuten (ikus [XV. m. 166] agiria).

1488-IX-16an, erretorearen Pedro Arriola prokuradoreak egun batzuk lehenago agiria aurkeztua zuen, baina Joan Beltranen aldeak bere epean ez zuen erantzunik eman. Beraz, Pedro Arriolak auzia amaitutzat ematea eskatu zien epaile entzuleei (ikus [XV. m. 167] agiria).

Egun berean Joan Beltranen prokuradore Frantzisko Santestebanek agiria aurkeztu zuen Errege-entzuegian. Lau egun lehenago erretorearen Pedro Arriola prokuradoreak aurkeztutako agiriari aurka egin zion.

Iraetako etxeak elizako patronatua errege-erreginen-gandik jaso zuen, eta ez zegoen kontraesanik jatorrian patronatua koroarena zela esan zuenean. Epaileek auzia amaitutzat jo zuten (ikus [XV. m. 168] agiria).

1488-XI-13an Errege-kantzelaritzan bertako eskribauak 1449-VI-11n Aizarnazabalen egindako [XV. m. 14] agiriaren kopia atera zuen eta originala Joan Intsaustiren aldeari itzuli zion¹¹.

18.2.6. Azkoitiko eta Debako idiakaiztarrak

1488-VII-1ean, Azkoitiko Iribeko etxean, Debako Gartzia Martinez Idiakaizkoa eskribauaren aurrean, Maria Martinez Idiakaizkoa testamentua egin zuen. Maria Martinez Azkoitiko Migel Perez Idiakaizkoaren eta Maria Gonzalez Indanetakoaren (oraingo Endañetakoaren) alaba zen, Joan Otxoa Iribekoaren emaztea. Hainbat elizatarako eta haren arimaren aldeko dirua eman ondoren, Joan Otxoa semea izendatu zuen oinordeko unibertsal. Hiru testamentu-betearazle izendatu zituen: Joan Perez Idiakaizkoa (Lilira ezkonduakoa), Migel Idiakaiz maisua (Joan Perezen anaia) eta Joan Martinez Jausorokoa¹².



18.7. irudia. Azkoitiko Jausoro etxea.

Hurrengo hilean, 1488-IX-20an, erregeak Debako alkateari agindua bidali zion. Martin Lopez Itziarkoa eskribaua hila zenez gero, haren erregistro eta protokoloak alargunak eta oinordekoek zeuzkaten. Debako Gartzia Martinez Idiakaizkoa eskribauak erregistro eta protokolo haiek eskatu egin zizkion, eta, erregeak, eskatutakoa ontzat eman zion¹³.

Deban, lehenago ere aipatua dugunez, Pedro Idiakaitz probestuak (errege-erreginen logela-zainak) auzia zuen Kontzejuarekin, probestu-soldatak ordaintzen ez zizkiolako. Horren harira 1488-XII-8an Valladolidtik *Errege Katolikoek* Gipuzkoako Joan Ribera korrejidoreari agindua bidali zioten. Kontzejuak eskatuta probestuaren soldatak bahituta zeuden, baina ordura arte zor ziotena ordainaraztea agindu zioten korrejidoreari¹⁴.

Bi egun geroago, 1488-XII-10ean, leku beretik Joan Riberari beste agindu bat bidali zioten. Joan Martinez Gilestegikoa eta Joan Migelez Irarrazabalgoa Gortera deitu zituzten Debako Pedro Idiakaitz probestuak Kontzejuarekin zuen auzian parte hartze-

ra. Jofre Ibañez Sasiolakoa batxilerrak gomendatu zion Pedrori biei deitzea. 50 egun igaro zituzten Gilestegikoa eta Irarrazabalgoak, eta gastu handiak egin zituzten. Jofre batxilerrari guztira 22.000 marai ordainaraztea eskatu zuten. *Errege Katolikoek* auzi hura Joan Ribera Gipuzkoako korrejidorearen esku utzi zuten¹⁵.

Egun batzuk geroago, 1488-XII-21ean, *Errege Katolikoek* Debako agintariei eta erreinuetako gainerakoei agindua bidali zieten. Joan Martinez Gilestegikoa (Debako alkatea, agirian “Lostegi” deitua) eta Joan Migelez Irarrazabalgoa (Kontzejuko fiela, agirian “Irazabal” deitua) beldur ziren Pedro Idiakaitzek edo haren lagunek kalte egingo ote zieten. Errege-erreginei babes eskatu zieten, eta lortu ere lortu zuten¹⁶.

18.2.7. Gipuzkoako Batzarrak Hernanin, etab.

Hernanin 1488. urteko azaroan eta abenduan Gipuzkoako Batzar Nagusiak bildu ziren. Belauntzari,



18.8. irudia. Hernani Santa Barbara menditik.

zazpi sukaldere ordaintzen bazuen ere, bi sukaldere ordaintzea zegokiona barkatu egin zioten, eta Mutiloari ere bai beste bi (guztira 11 sukaldere ordaintzen zuen). Donostiari, berriz, ordaindu ohi zuen 172 sukaldere barkatu zioten. Batzuen iritziz urte hartan maiatzean Azkoitian egindako Batzar Nagusietan 72 sukaldere barkatu zioten Donostiari, eta Hernaniko Batzarretan beste 100 sukaldere. Azkenik, hurrengo urtean, 1489.ean, Basarten Batzar Bereziatuan 172 sukaldere 20 urterako barkatu omen zioten, hiribildua erre egin zelako¹.

Hernaniko Batzar Nagusietan, 1488. urtekoetan, epaile arbitro batzuek erabakia jakinarazi zuten, Donostiako probestuak bertako hiribilduarekin zuen auziari zegokiona, Diego Santxez Alfarokoa batxiler eta korrejidoreordearen aurrean.

Batzar Nagusi haietan Zestoako pertsonekin zerikusia zuten lau gai aztertu zituzten, besteak beste (ikus [XV. m. 199] agiria). Lehenik, Beltran Ibañez Gebarakoak (Altzolarasko jauregikoak) Legazpi (Urola) ibaiko txalupen nabigazioaz Diego Gonzalez de la Sal batxilerrak emandako epaia bete zezaten, demanda ipini zien Joan Lopez Altzolaraskoari eta semeari, baina Batzar Nagusiek aske utzi zituzten aita-semeak demanda hartatik (gai honekin zerikusia dute [XV. m. 148] eta [XV. m. 149] agiriek).

Bigarrenik, Beltran Ibañez Gebarakoak eta semeak (Altzolarasko jauregikoek) Joan Lopez Amilibikoa eskribauarekin zuten auzian, Amilibikoa Batzarretara joaten zenean Joan Lopez Altzolaraskoak (Bekolakoak) eta semeak ahalegina egingo zuten Gebarakoa eta Amilibiko eskribaua adiskidetu zitezten (gai honekin zerikusia dute [XV. m. 151], [XV. m. 153] eta [XV. m. 171] agiriek).

Hirugarrenik, Joan Lopez Altzolaratsen Otxoa Lopez semea ez zegoen han Fernando Iraetaren heriotzagatik (badirudi Otxoa Lopez semeak hil zuela eta ihes eginda zegoela), eta Beltran Ibañez Gebarakoak hitz eginda arazoa hildakoaren ahaideekin konpondu egin nahi omen zuen.

Laugarrenik, Gipuzkoako korrejidoreordeak eta Batzarrek gai bat bideratzeko agindua eman zieten Aizarnako Lope Iraeta apaizari, Martin Iribarreni eta Iñigo Ruiz Etxeberrikoari. Beltran Ibañez Gebarakoak eta bere senideek batetik, eta Joan Lopezek (Bekolakoak) eta bere senideek bestetik, lehentxeago aipatutako hiru gizonen erabakitakoa egingo zuten adiskidetzeko. Bestela, Bandako ordenako marka zuten 100 doblako isuna ipiniko zieten (ikus [XV. m. 199] agiria).

Urte hartan *Errege Katolikoek* zenbait agiri bidali zuten Gipuzkoara. 1488-VII-28an Murtziatik bidalitako errege-zedulan Enrike IV.ak emandako pribilegio bat berretsi zuten. Probintziaren auziak ezingo ziren Kantzelaritzan ebatzi, Errege-epaitegian baizik.

1488-XI-19an Valladoliden emandako aginduaren arabera, epaile komisarioek Gipuzkoako Ermandadaren lege eta prozedurak bete egin beharko zituzten. Egun berean bidalitako beste agiri batean, Batzarretako apelazio-epaiek Ermandadeko Ordenantzak bete beharko zituztela agindu zen. Urte hartako ekainaren 3an, Tuteran, Nafarroako gobernadoreak baimena eman zuen ogia Gipuzkoara eramanez ahal izateko⁵.

Gipuzkoako Batzarretako eskribau fiela urte hartan Domenjon Gonzalez Andiakoa tolosarra zen, baina baita Anton Gonzalez Andiakoa ere. Aitak ofizioa utzi egin zuen, eta 1488-III-12an Valentziatik errege-erreginek bidalitako agirian Anton semea izendatu zuten kargu horretarako¹.

1488. urtean Gaztelako Isabel erreginak Diego Perez Sarmiento (Salinasko kondea) Hondarribira bidali zuen, Pero Carrillo Albornoz eta zenbait zaldun eta kapitain tropen buru zirela. Britainiako Ana dukesari laguntzera joandakoak guztira mila zaldun, baleztari, lantzari eta espingardari (eskuzko su-arma zutenak), etab. ziren⁵. Azaroaren 19an Bizkaian eta Gipuzkoan debekatu egin zuten bertatik bonbardak (kanoiak), kulebrinak (su-arma txikiak), espingardak, baleztak, azkonak, lantzak, korazak, ezkutuak eta beste zenbait arma mota kanpora saltzea. Gainera,

Antso Ibañez Malleakoa etorriko zen arma mota horiek guztiak erostera Siziliako gerran erabil zitazten¹⁷.

Armagintzak, beraz, gora egin zuen Bizkaian eta Gipuzkoan. Beduako errenterian ere Bizkaiko burdin mea jasotzen zuten itsasoz ekarrita, Legazpi (Urola) ibai ondoko burdinotara banatzeko. 1488-VI-30ean Joan Azkune jauna Pedro Perez Otorakoarentzat Barrenola burdinolara 700 kintal mea garraiatzera behartu zen; baita Mandiotegi mendietan 400 karga

egur-ikatz egin eta burdinolara ekartzera ere¹⁸.

Armagintza bultzatzen zuen beste gerra bat Granadako erreinuaren aurkakoa zen. Gartzia Lopez Arriarangoa itsas armadako kapitaina (Maria Lopez Iraetakoaren semea) zebilen han bere karabelekin. 1488-XII-22an Valladolidtik auzitara dei egin zieten Maria Lopez Iraetakoari eta honen seme Pedro Arriarani, Arriarango San Pedro monasterioa Mariaren seme zaharrenari, Gartzia Lopez Arriarangoari, eman ziezaioten⁵.



18.9. irudia. Beasain. Arriarango San Pedro eliza.

18.3. 1489. URTEA

18.3.1. Joan Beltran IV.aren eta Joan Intsausti erretorearen arteko auzia amaitzear

Joan Beltran IV.a Iraetak Joan Intsausti erretorearekin eta eliztarrekin Aizarnazabalgo elizaren patronatuaz zuen auzian, 1489-II-7an Valladoliden, Errege-entzutegiko epaileek epaia argitaratu zuten. Errege-erreginek Joan Beltran IV.ari bidalitako mesede-gutuna, Aizarnazabalgo patronatua ematen ziona, ontzat jo

zuten. Joan Beltranek bere arrazoiak ongi frogatu zituen. Joan Intsaustik eta eliztarrek, berriz, ez. Beraz, kendu egin zioten Joan Intsaustiri erretore-kargua.

Erretore izateko berriz aurkeztuko zuten eliztarrek gai zen pertsona, baina Joan Beltran IV.aren (edo errege-erreginen eskutik patronatua zeukanaren) baimena beharko zuten Iruñeko apezpikuari inor aurkezteko. Eliztarrek erretore izateko berriro Joan Intsaus-

ti aurkeztu nahi baldin bazuten, Joan Beltranek baimena eskribauaren eta lekukoen aurrean eman behar-ko zuen.

Aurrerantzean Joan Beltranek Aizarnazabal eta Oikiako elizetako hamarrenen erdiak eramango zituen. Joan Intsausti, berriz, kondenatu egin zuten auzia hasi ezkerok jaso zituen hamarrenen erdiak Joan Beltrani ematera. Joan Beltrani itzuli beharrekoa balioesteko, alde bakoitzak gizon bat izendatuko zuen. Bi hauek ados jartzen ez baziren, Zumaiako bikarioak erabakiko zuen zer kopuru itzuli iratarrari. Balioetsitakoa Intsaustik Joan Beltrani urtebetean hiru alditan itzuliko zion: herena lehen lauhilekoan, beste herena bigarren lauhilekoan eta hirugarren herena hirugarrenean. Alde bakoitzak bere auzi-gastuak ordainduko zituen (ikus [XV. m. 172] agiria).

1489-III-26an Valladoliden, Errege-entzutegiko epaiaren berri eman zion Zestoako Joan Ibañez Amilibikoa eskribauak erretorearen eta Aizarnazabal zein Oikiako eliztarren prokuradore Pedro Arriolari. Jakinarazpen hartan lekuko izan ziren Martin Gurrutxaga, Fernando Intsausti eta honen morroi Anton Oro (ikus [XV. m. 173] agiria).

Valladoliden, 1489-IV-3an, Errege-entzutegian 1489-II-7an emandako epaiaren iratarraren prokuradore Frantzisko Santestebanek eskea egin zien epaileei. Bere aldeak arrazoiak ongi frogatu zituen, eta Joan Intsaustirenak ez. Beraz, gai horretan epaia berrets zezatela eskatu zion. Hala ere, Joan Intsausti erretore izatetik erabat kendu behar zen. Erretorea aurkezteko eskubidea osorik zen bere aldearena, eta elizako opalkuntzak ere Iraetako etxeari zegozkion.

Epaian azken puntu horiek ahoz aldarrikatu zirenetik aldatu egin ziren, horretarako eskubiderik izan gabe. Patroi bakarra bere aldeak izan behar zuen, eliztarren partehartzerik gabe. Hamarrenen erdia ere erretoreari utzi zioten, baina dena Joan Beltranek hartu behar zuen, eta gero hark erretoreari zatia eman. Opalkuntzekin ere berdindatu behar zuten epaileek.

Joan Intsaustiri azken hamar urtean eramandako fruituak itzularazi behar zitzaizkion, eta ez azken auzia hasi ondoren eramandakoak bakarrik. Auzi-gastuak ere osorik kontrako aldeari ordainarazi behar zitzaizkion.

Entzutegiko epaileek kopia helarazi zioten Intsaustiren prokuradore Pedro Arriolari, erantzuna presta zezan (ikus [XV. m. 174] agiria).

1489-V-2an Valladoliden, Errege-entzutegian 1489-II-7an emandako epaiaren iratarraren prokuradore zen Pedro Arriolak eske-agiria aurkeztu zuen. Epaian ziotenez, erretorea aurkezteko Joan Beltranen edo Iraetako jaunaren onespina behar-ko zen. Gainera, erretoreak Joan Beltranek demanda ipini ondoren jasotako hamarrenen erdia Iraetako etxeari itzuli egin behar-ko zizkion.

Arriolak zioenez Iraetako jaunak ez ziren, ordea, Aizarnazabal eta Oikiako elizetako patroi izan, eta erretorea aurkezteko Iraetako jaunarengana joan baziren, eliztar gehienek Ahaide Nagusia zelako eta hari jakinarazteko baino ez zen izan. Epaian Joan Beltranen baimena beharrezkotzat jotzen zenez gero, azkenean Joan Beltranek nahi zuen erretorea ipini behar-ko zuten, bestela onespina emango ez zuelako.

Epaian elizetako hamarrenen erdia ere Joan Beltrani ematea agintzen zen, baina Iraetako jaunek horretarako eskubiderik ez zuten eduki, nahiz eta inoiz hamarrenak jasotzeko eskubidea errentan hartu.

Beraz, Pedro Arriolak Errege-entzutegian epai hura deusezta zezatela eskatu zuen. Epaile entzuleek eskabide hura beste aldeari ere ematea agindu zuten, hurrengo entzunaldian erantzun ziezaioten (ikus [XV. m. 175] agiria).

1489-V-8an, Valladoliden bertan, Pedro Arriolak agiria aurkeztu zuen. Joan Beltranen prokuradore Santestebani epea eman zitzaion erantzuna emateko, baina ez zen azaldu eta Arriolak auzia amaitutzat



8.10. irudia. Iraetako ermitaren aldarea eta erretaula.

eman zezatela eskatu zien epaileei. Halaxe egin zuten epaitegikoek (ikus [XV. m. 176] agiria).

1489-VI-2an epaileek onartu egin zuten Joan Intsaustiren aldeak azkenaldian alegatutakoa (eta lehen auzialdian frogatu gabea) frogatzeko aukera ematea. 30 eguneko epea zuten horretarako. Lekukoei deitzeko gutunak eskatu eta eman egingo zizkieten. 15 eguneko epean, ordea, fidatzaileak izendatuko zituzten, eskatutakoa frogatzen ez baldin bazuten hiru mila maraiko isuna ordain zezaten.

Joan Ibañez Amilibikoa eskribau zestoarrak egun berean jakinarazi zion epaiak zioena Intsaustiren Pedro Arriola prokuradoreari. Bartolome Zuloaga, Domingo Alos debarra eta Joan Gartzia Baldakoaren Joan morroia izan ziren lekuko (ikus [XV. m. 177] agiria).

Egun batzuk geroago, 1489-VI-23an, Pedro Arriolak agiria aurkeztu zuen. 1489-VI-2an emandako epaia Joan Intsausti eta eliztarren aurkakoa izan zen. Bere aldeko epaileek 30 eguneko epea eman zioten frogatzeko, baina 100 egun baino gehiago behar zituzten. Gainera, behar bezalako frogak ez aurkeztera, zigor handiegiak izango zituzten, epaiaren arabera. Beste zenbait arrazoi ere aurkeztu zituen Arriolak epaia deusezta zezaten. Iraetarraren prokuradore Frantzisko Santestebanek ez zituen arrazoi haiek onartu, eta epaileek auzia amaitutzat jo zuten (ikus [XV. m. 178] agiria).

Hurrengo hilean, 1489-VII-3an, irietarraren prokuradore Frantzisko Santestebanek eskaintza egin zuten beste aldeko. Joan Beltran Iraeta patroitza onartzen baldin bazuten, prest zeuden Joan Intsausti bizialdi osorako erretoretza ontzat emateko.

Eskaintza Errege-entzutegian aurkeztu, eta epaileek auzia amaitutzat jo zuten (ikus [XV. m. 179] agiria).

Egun eta leku berean Intsaustiren prokuradore Pedro Arriolak azkenaldian eskatutako testigantzak aurkezteari uko egiten ziola jakinarazi zuten epaileei. Isunaren beldur zirelako, ez zieten lekukoei deituko eta auzitik irten egin zen.

Jakinarazpena Errege-entzutegian aurkeztu, eta epaileek auzia amaitutzat jo zuten (ikus [XV. m. 180] agiria).

18.3.2. Martin Saez Martzanakoa (Beduakoa) zorretan

Errege Katolikoek 1489-VII-6an Valladolidtik Zestoako, Gipuzkoako eta haien erreinuetako gainerako agintariei gutun betearazlea bidali zieten. Errege-kantzularitzan auzia zuten apelazio-mailan Zestoako auzotar Martin Saez Martzanakoak (Beduako jaunak) eta Bilboko auzotar Pedro Ibañez Basozabalgoak.

Auzia lehenbizi Zestoako alkate Joan Ibañez Ezenarrokoaren aurrean aurkeztu zuen Basozabal bilbo-

tarrak. Eskritura baten arabera, Martin Saezek eta haren seme Joan Martzanak epe baten barruan urrezko 100 koroa eta 82 dukat itzuli behar zizkioten Basozabali. Bestela kopuru hura halako bi eman beharko zioten. Bilbotarrak Zestoako alkateari eska egin zion, Toledoko Gorteetan onartutako legeen arabera Martin Saezi ondasunak bahitu eta exekutatuta, zorrari eta auzi-gastuei zegokiena jaso zezan.

Orduan Martin eta Joan aita-seekek Zestoako alkatearie skeae gin zioten. Alkateake rreinukol egeei aurka eginez agindua eman omen zion probestuari Beduakoaren ondasunak bahitu eta enkantean saltzeko, baina agindu hura deusezta zezala eskatu zioten. Basozabalgoarekin sinatutako obligazioa baldintzapekoa eta lukurreriazkoa omen zen. Aipaturiko koroak eta dukatak *San Migel* karabelaren arriskutarako omen ziren, itsasontziak deskarga egiten zuen arte.

Pedro Ibañezek, bere gain hartzen zuen arriskuagatik, emandako diruagatik ehuneko 35 kobratuko omen zuen. Beraz, lukurreriazko eskritura zen. Gainera, ondasunak bahitu baino lehen Martin eta Joan Martzana aita-seekei ez zieten deitu.

Joan Ibañez Ezenarrokoa alkateak bi aldeei entzun, lekuko batzuegandik informazioa jaso eta epaia eman zuen. 100 koroa eta 82 dukat hartzekodunak arriskatzen zituen, itsasontziak Zumaiako kanaletik irten eta portura iritsita deskargatu arte. Hurrengo egunetik hasita 31 eguneko epean zorra ordaindu egin behar zioten bilbotarrari. Karabela Flandesko konde-erriko Holandako Medianburgeko portura (gure ustez oraingo Middelburgera) onik iritsi omen zen, Joan Martzana ontzi-maisuak eramanda, eta han Basozabalen faktoreak zorra ordain zezala eskatu zion. Orduan itsasontzia bahitu egin zioten.



18.11. irudia. Zesto. Beduan ontziola zegoen lekua.

Ondorioz, Zestoako alkateak Martin Saez Bedua-koaren ondasunak bahitu eta exekutatzea agindu zuen, zorra ordain zezan. Horretarako Toledoko legeak beteko ziren. Ondasunak enkantean saltzeko prozedura ere zehaztu zuen alkateak.

Orduan Martin Saez Martzanakoak gora jo zuen, Errege-kantzelaritzara, Zestoako alkatearen epaia deusezta zezaten. Horretarako zeuden arrazoien berri eman zien. Lukurreriaz egindako kontratua zen. 40.000 marai zor zizkion bilbotarrari, baina ia halako bi (urrezko 100 koroa eta 82 dukat) ordaintzera behartu zuen. Martin Saezek *San Migel* itsasontzi berria egin zuen, baina itzupa eta sokak falta zituenez gero, Joan Martzana semea Bilbora bidali zuen haiek erostera. Laurogei bat kintal erosi zituen, kintal bakoitza mila bat maraitan. Gero Basozabali erdia ordaindu zitzaion (40 bat mila marai). Beste erdia ez zeukanez gero, Joan Martzanak maileguz ematea eskatu zion bilbotarrari, baina honek ehuneko 35eko interesa ezarri zion, hau da, guztira urrezko 100 koroa eta 82 dukat itzuli behar zitzaizkion. Joanez ezinbestean onartu zuen lukurreriazko kontratu hura. Gainera Zestoako alkateak zorra halako bi ordaintzeko adina ondasun bahitu eta exekutatzea agindu zuen. Martin Saez, bestalde, prest zegoen 40.000 marai Basozabali ordaintzeko.

Orduan Pedro Ibañez Basozabalgoak eskea egin zien epaileei Zestoako alkateak emandako epaiaren alde. Itsasontzia Andaluziako Puerto de Santa Maria-ra joan zen, eta handik, ardoz eta frutaz beteta, Holandako Medianburgera (edo Middelburgera) onik heldu zen. Han Joan Martzana ontzi-maisuari zor zuena eskatu zioten, baina ez zuen zorra ordaindu.

Kantzelaritzako epaileek 80 eguneko epea eman zioten alde bakoitzari bere frogak eta testigantzak aurkez zitzaion. Pedro Ibañezek aurka egin zuen, baina auzia, berrikuspen-mailan, bere bideari jarraitu zitzaion. Testigantzak argitaratu eta bi aldeen arrazoiak entzunda, epaia eman zuten. Zestoako Joan Ibañez Ezenarrokoa alkateak emandako epaia baliogabetu egin zuten, eta alkatea Martin Saezek Zestoan

lehen auzialdian egindako gastuak ordaintzera kondenatu zuten. Basozabalek Martin Saezen auzi-gastuak ordainduko zituen, Kantzelaritzan epaiaren eguna arte egindakoak.

Pedro Ibañez Basozabalgoak aurka egin zion epaiari, eta Martiz Saezek alde. Gero epaileek behin betiko epaia eman zuten, berrikuspen-mailan, lehenago emandakoa ia osorik berretsiz. Hala ere, Zestoako alkateak ez zizkion Martin Saezi Zestoan lehen auzialdian egindako gastuak ordaindu beharko. Gainerako auzi-gastuak ere bakoitzak bereak ordainduko zituen. Martin Saezek Basozabalgoari obligazio-eskriturak zioen kopurua (ehuneko 35eko interesa barne zuena) ordaindu egin beharko zion. Bestela ondasunak bahitu eta enkantean saldu egingo zizkioten. Ondasunik ezean, preso edukiko zuten zor osoa ordaindu arte (ikus [XV. m. 181] agiria).

Auzi honek, hasi eta amaitu arte, gutxienez urtebete iraungo zuela kontuan hartzen badugu, Bedua bere lur eta etxeekin Zestoako parte 1486ko epaiaren gero (Aizarnazabal eta Oikia Zumaiara biltzen zituen gero) 1488. urtearen erdialdea baino lehenagotik zela esan daiteke, 1486. urteaz gero seguru asko.

18.3.3. Zumaiaren agiriak Saiaz eta hiribilduaz

1489-VII-27an Valladolidko Errege-kantzelaritzan Altzolarasko Joan abadea aurkeztu zen Zumaiako Kontzejuaren izenean, eta eskea egin zuen. Zumaiak Zestoarekin auzia izan zuen Saiazko (Aizarnazabal eta Oikiako) biztanleei buruz, hauek Zestoako auzotar ez eta Zumaiako auzotar izan zitezten. Prozesu hartan lehenagoko epai baten agiria (1399koa) aurkeztu zuten, eta haren kopiaren beharrean ziren.

Auzitegiko epaileek kopia eman ziezaiotela agindu zuten (ikus [XV. m. 182] agiria).

Egun eta leku berean Valladolidko Altzolarasko Joan abadeak Zumaiako Kontzejuaren izenean beste eske bat egin zuen. Larruzko pribilegio bat aurkeztu



18.12. irudia. Zumaia eta San Migel Artadi.

zien, Gaztelako Alfontso XI.a erregeak 1347-VII-4an zumaiarrei emandako hiri-gutuna, hain zuzen. Pergamino hura zaharra zen, eta agian lapurtu egingo zieten, edo erre edo galdu edo kaltetu egingo zitzairen. Horregatik, Kantzularitzan haren kopia egin zezatela eskatu zuten.

Auzitegiko epaileek kopia egin ziezaiotela agindu zuten (ikus [XV. m. 183] agiria).

18.3.4. Zestoako Kontzejuaren agirien inbentarioa

Zestoako Udalak artxiboan orduan zituen agirien inbentario edo zerrenda idatzi zuen. Pedro Ipintza alkatearen eta Martin Urrutia fielaren aurrean, Joan Perez Artazubiagakoa eskribauak egin zuen agiria. Lekuko hauek izan ziren: Martin Perez Iribarregoa, Beltran Gebara, Pero Martinez Garratzakoa, Martin Aspe, Joan Arretxe, Pero Fernandez Aizarnazabalgoa, Joan Gartzia Lasakoa eta Martin Arano.

Zerrendako eskriturak hauek ziren:

- Gaztelako Joan I.a erregearen pribilegio bat, 1383koa (1421 aro hispanikoan). (Ikus [XIV. m. 6] agiria).
- Gaztelako Joan I.a erregearen pribilegio bat, 1380. urtekoa.
- Gaztelako Joan II.a erregearen pribilegio bat, 1434koa. (Ikus [XIV. m. 12] agiria).
- Gaztelako Enrike III.a erregearen pribilegio bat, 1392koa.
- Gaztelako Joan II.a erregearen pribilegio bat, 1407koa.
- *Errege Katoliko*en pribilegio bat, 1476koa.
- Getaria eta Zestoaren arteko agiri bat (pergamino). (Agian [XIV. m. 15] agiria edo agian [XIV. m. 17] agiria).
- Saiazko biztanleen auzotartasunaz agiri bat. (Agian [XIV. m. 14] agiria).
- Etorrako saroiaren salerosketa-agiria. (Ikus [XV. m. 38] agiria).
- Otxoa Lopez Altzolaraskoa eta Kontzejuaren

- arteko agiria. (Ikus [XIV. m. 8] agiria).
- Olagizonen eta Kontzejuaren arteko konpromisoa. (Ikus [XIV. m. 22] agiria).
 - Izarrizpeko Zestoa eta Azpeitiaren jurisdikzio-mugen agiria. (Agian [XIV. m. 3] agiria edo agian [XIV. m. 4] agiria).
 - Zestoako eta Azpeitiko Kontzejuak zigorra ezarri egindako gutuna.
 - Martin Diaz Lilikoaren eta Kontzejuaren artean presari buruz izandako auziaren epaia.
 - Getaria, Aizarna eta Zestoaren arteko baldintzak eta kontratua. (Ikus [XIV. m. 18] agiria).
 - Arrasate erretzeagatiko ordainketa-agiriak. (Ikus [XV. m. 19], [XV. m. 20], [XV. m. 21] eta [XV. m. 22] agiriak).
 - Zestoako eliza eraikitze baimena.
 - Patroiek edozer gauza saltzeko zuten baimena.
 - Beduako etxea bere lur guztiekin Zestoako auzotar izateko gutuna. (Oharra: Aizarnazabal eta Oikia Zestoatik irten eta Zumaiara 1486an bildu zirenean laster sartuko zen Beduako etxea, bere lur eta etxe guztiekin, Zestoako jurisdikziora agiri honen bidez. Tamalez agiriaren data zein zen ez dakigu).
 - Paperezko beste zenbait eskritura, Iraetarekin izandako auziez eta beste zenbait gaiz.

- Aizarnako elizako saltzaileen aholku-gutuna.
- Kontzejuak Joan Beltran Iraetari zenbait oinordekoren bizialdirako emandako patronatu-gutuna.
- Joan Martinez Zabalakoak errotaz egin zuen obligazio-gutuna. (Ikus [XV. m. 185] agiria).
- Iruñeko apezpikuak Zestoa eta Aizarnako bikarioei ahalorde orokorra emanegindako gutuna.
- Aizarna eta Zestoako elizen patronatua berresteko gutuna (ikus [XV. m. 184] agiria).

18.3.5. Zestoako Amabiturrietako errota

1489-XII-29an Zestoako Joan Martinez Zabalakoa eskribauak eta Maria Joango Barrundia emazteak ziotenez, errota eraiki zuten Amabiturrietan, hiribildutik gertu. Zati bat, ordea, herri-lurretan zuen errotak, eta Kontzejuak auzitara deitu zituen. Auzia saihestearren, senar-emazteek beren buruak behartu egin zituzten, errotak irauten zuen bitartean, urtero Zestoako Kontzejuari 10 florin (bakoitza 100 sosekoa) ordaintzera. Horretarako errota bera hipotekatu zuten.

Lekuko zestoar hauek izan ziren: Eneko Ruiz Etxeberrikoa, Martin Perez Iribarregoa, Martin Amilibia eta Pero Ortiz Iraetakoa. Zestoako Joan

18.13. irudia.
Amabiturrieta eta
Urolaren elkargunea.



Martinez Ibañetakoa eskribauak egin zuen agiria (ikus [XV. m. 185] agiria).

18.3.6. Pedro Idiakaitzen eta Debako Kontzejuaren arteko auzia

1489-II-10ean Medina del Campo-tik errege-erreginek gutuna bidali zioten Gipuzkoako Joan Ribera korrejidoreari. Pedro Idiakaitz azkoitiarrak, *Errege Katoliko*en logela-zainak, auzia zuen Debako Kontzejuarekin. Pedro Debako probestu zen, baina Kontzejuak ez zizkion soldatak ordaintzen. Auzian testigantzak azaldu ziren, baina lekukoek ez omen zuten haiek ziotena aitortu, eta, ondorioz, Pedro Idiakaitzek susmagarria ez zen eskribaua, bi aldeek onartutakoa, izendatzea eskatu zuen¹⁹.

Hurrengo egunean beste agiri bat bidali zioten korrejidore berari, Pedro Idiakaitzek aurkeztutako lekukoei galderak berriz egin ziezazkieten²⁰.

Errege Katolikoek urte eta hil berean Gipuzkoa eta Bizkaiko eskribauei beste agindu bat bidali zieten, Pedro Idiakaitzi Debako probestutzari buruzko eskriturak eman ziezazkieten²¹.

1489-III-20an Medina del Campo-tik *Errege Katolikoek* agindua eman zioten Gipuzkoako Joan Ribera korrejidoreari. Pedro Idiakaitzen auziaz arduratuko zen. Bi aldeei entzun ondoren erabaki egin beharko zuen probestuari zenbat ordaindu beharko zioten²².

1489-V-26an Jaendik dei egin zieten errege-erreginek Jofre Sasiolari, Joan Migelez Irarrazabalgoari eta Joan Martinez Gilestegikoari Pedro Idiakaitzen auziko gastuen kontuak garbitzera Errege-kontseilura aurkez zitezen²³.

1489koa benduan *ErregeK atolikoek* aginduab idali zioten Gipuzkoako Joan Ribera korrejidoreari. Kon-



18.14. irudia. Debako Sasiola dorrea.

tzejuak arrazoi faltsuak aurkeztu omen zituen eta errege-gutuna ez zioten eman korrejidoreari auzia luzatzearren. Beraz, auziko prozesu osoa Errege-kontseilura itzuli behar zuen, auziak jarraipena han izan zezan²⁴.

18.3.7. Gipuzkoako Batzarrak, Domenjonen heriotza, etab.

Gipuzkoan 1489. urteko otsailaren 7an Batzar Bereziak, Azkoitiko Basarten bilduta, aurreko urtean Donostian suteak egindako kalteez arduratu ziren²⁵. Urte hartan Donostian hiru etxe baino ez omen ziren geratu suntsitu gabe³. Hiribilduko seiehun etxe erre ziren²⁶. Donostiari 172 sukaldegatik ordaintzea zego-kiona barkatu zioten¹, hogeitaurterako barkatu ere⁵. Orduan Donostiako Ordenantzak Enbeltran kalearen eta harresiaren artean plaza egitea agindu zuten. Horrela sortu zen “Plaza Zaharra”. Suteen aurkako neurriak hartu zituzten, eta garbi geratu zen Kontzeju irekia hiribilduko Errejimentuak ordezkatu zuela²⁶. Bide batez, Probintziak Joan Ribera korrejidorearen ordezkari Diego Santxez Alfarokoa izendatzeko baldintzak ipini zituen¹.

Urte bereko irailean berriz bildu ziren Basarten. Batzar Bereziak hilaren 4tik 15era bitartean egin ziren, eta Arrasate erre egin zelako 15 urterako barkatu zioten Probintziari egiten zion ekarpen osoa¹. Arrasate berreraikitze Ordenantzak egin zituzten, eta Gartzia Sasietak gaztelaniaz eta euskaraz (“lengua bascongada”) argitaratu zituen⁴.

1489ko abenduan, berriz, Gipuzkoako Batzar Nagusiak Deban bildu ziren. Arrasateri ere barkatu egin zioten sukaldekatiko sistemaz ordaintzen zuela²⁵. Berez Batzar Nagusiak azaroaren 18tik abenduaren 4a arte izan ziren. Batzar haietara zihola, bidean, Zumaian Martin Otxoa Sasiolakoaren etxean, Domenjon Gonzalez Andiakoa eskribau fiela hil egin zen. Azaroaren 18a zen, asteazkena, eta handik Tolosara eraman eta hobiratu egin zuten. Anton Gozanlez Andiakoa semeak ordezkatu zuen Probintziako eskribautzan¹. Domenjon pertsonaia garrantzitsua izan zen, Probintziaren politikan eta administrazioan eragin handia izan zuelako. Jende arruntak Domenjon Andia “Gipuzkoako erregia” esaten omen zuen²⁷.

18.15. irudia.
Tolosako Andre
Mariaren eliza.



1489. urtean *Errege Katolikoek* zenbait agiri bidali zuten Gipuzkoara. Urtarrilaren 24an Valladolidtik gutuna bidali zuten burdin mea Probintziakoei beste inori baino lehenago sal ziezaieten. Egun eta leku beretik debekatu egin zuten gerra izanda ere Probintziara hornigaiekin zetozen itsasontziei erasotzea. 1489-I-24an beste zedula bat bidali zieten alkabala-biltzaileei, Probintziako jendea ongi trata zezaten. 1489-VIII-26an, berriz, Isabel erreginak Jaendik monetagatik Probintzian zigorrik ez exekutatzeari agindu zuen. Urriaren 14an Jaendik errege-zedularen bidez Joan Ribera korrejidoreari bere Gipuzkoako agintaldia urtebetez luzatu zioten⁵.

1489-I-24an Valladolidtik, eta 1489-VII-18an Jaendik, errege-erreginek Frantziako erreinutik Gipuzkoara hornidurekin zetozen itsasontziei aske eta seguru ibiltzen laguntzea agindu zuten. 1489-VII-18an Jaendik Isabel erreginak agindua eman zion Gipuzkoako korrejidore Joan Riberrari, ordezkoa, bi merio eta sustatzaile fiskala (bi urte lehenago izendatu zituenak) alda zitzan, zeren eta, Probintziako ohi-turari aurka eginez, bertako jendea baitzen. Atzerrikoek izan behar zuten, korrejidorearen ordezkoa fidantzak emango zituen, merioa bakarra izango zen (eta ez bi), eta sustatzaile fiskalaren lanak korrejido-reordeak egingo zituen.

Egun eta leku beretik erreginak beste bi agiri bidali zituen Gipuzkoara. Batean zioenez, Korrejidoreari eta laguntzaileei debekatu egin zien zegokien saria halako bi kobratzea. Bestean Probintziak onartutako Ordenantza batzuk onetsi egin zituen. Botikariak nahitaez Burgosko prezioetan saldu behar zituzten sendagaiak. Bestela Gaztelako sos bat emango zuten, hiribilduko harresia konpontzeko, zigor gisa. Beste ordenantza batek mediku juduei debekatu egin zien botikakoak ez ziren sendagaiak erabiltzea, eta botikariari txartela eman behar zion gaixoaren izena idatzita. Bestalde, Ermandadeak egin ez zituen Ordenantzak ez ziren auzietan erabili behar. Aurreantzean, Batzarrek egindako eta erregeak onetsitako Ordenantzak liburuan idatzi egin beharko zituen eskribauak²⁸.

1489. urtean *Errege Katolikoek* Gortean musikari famatua zen Joan Antxieta. *En memoria de Alexandre izeneko* erromantzeari musika ipini zion. Bertan Konstantinoplako sultanak Palestinako kristauen aurka egindakoak gogoratzen ziren; izan ere, sultanak kristauak Granadako Baza konkistatzen musulmanei egindakoagatik mendeku hartu baitzuen. Joan Antxieta Azpeitiko parrokia bikario edo ordezkobidez gobernatu behar izan zuen⁵.



18.16. irudia. Azpeitiko hiribilduko Antxieta etxea.

Granadako erreinuaren aurkako gerra hartan, Bazako setioan, Nairako dukearen ondoan Biktor eta Karlos Belez Gebarakoa anaiek (Iñigo Belez Gebarakoaren semeek) parte hartu zuten. Biktor anaia 1489-XII-15ean testamentua egin eta hil egin zen. Iñigo Belez aita urte hartan hasi zen Oñatiko konde titulua erabiltzen²⁹.

Gerra-giro hartan Antso Ibañez Malleakoa errege-erreginen aginduz Bizkaia eta Gipuzkoako armagintza bultzatzen ari zen, baina armak ez ziren behar bezain arin ekoizten. Sizilia aldera bidali nahi zituzten¹⁷.

Zestoako aitzogile bat garai hartan Durangoko hiribilduan bizi zen: Joan Migelez Zestoakoa. Hiribilduaren bideak zehazteko egindako agiri batean, 1489-

IX-3koan, azaltzen da lekuko gisa. Joan Ibañez Undakoa ere aipatzen da agiri berean³⁰, eta Zestoan 1404-XII-19an Lasako burdinolaren jabe Joan Gartzia Lasakoa azaltzen da, Gartzia Perez Undakoaren semea (ikus [XV. m. 1] agiria), 8.4.1. atalean adierazi genuenez. Gartzia Perez hura ere Durango aldekoa izan zitekeela pentsatzen dugu.

18.4. 1490. URTEA

18.4.1. Joan Beltran IV.aren eta Joan Intsaustiren arteko auziaren amaiera

Joan Beltran IV.a Iraetak Joan Intsausti erretorearekin Aizarnazabalgo elizaren patronatuaz zuen auzian, Valladoliden Zestoako Joan Ibañez Amilibikoa eskribauaren eta lekukoen aurrean Joan Gartzia Baldakoa agertu zen. Joan Gartzia Joan Beltran IV.a Iraetaren ama Maria Otxoa Likonakoaren anaia zen, Azkoitiko Balda etxeko jauna, eta Aizarnazabalgo elizako patronatuaz Joan Intsausti erretorearekin zuen auzian parte hartzera joan zen. Ordura arte iraletarraren prokuradore izandako Frantzisko Santesteban ordeztu zuen, baina hark auzian ordura arte egin zituen lan guztiak ontzat emanda. Lekuko Joan eta Kristobal del Marmol anaiak eta Joan Gartzia Joan morroia izan ziren (ikus [XV. m. 186] agiria).

1490-VII-9an Errege-kantzelaritzakoek behin betiko epaia eman zuten. Oro har, 1489-VI-2ko epaia (ikus [XV. m. 177] agiria) berretsi egin zuten, baina aldaketa txiki batzuk ezarri zituzten. Joan Intsaustik kondenagatik ordaindu beharreko hamarrenak kontatzeko ibaiak egiten zuen zatiketa kontuan hartuko zen, Joan Beltranen arbasoek hamarrenak jasotzeko egiten zuten bezala. Opalkuntzen erdia ere Joan Beltranek eramango zuen, baina erretoreari ematen zioten dirua ez.

Joan Intsaustik eramandako fruituen erdia itzuli egin behar zion Joan Beltrani, baina epea kontatzen

1485eko maiatzaren 9tik hasiko zitzaion, errege-erreginek Joan Beltrani egindako mesedearen berri orduan izan zuelako eta kontra egin ziolako. Elizarako erretore berria izendatu behar zenean, Joan Beltranek (edo ondorengoak) eliztarrei aurkeztu egingo zien hauek onespina eman zezaten.

Auzi-gastuak alde bakoitzak bereak ordainduko zituen (ikus [XV. m. 188] agiria)

1490-VII-20an, Valladolidtik, 1485-III-28an Kordobatik *Errege Katolikoek* Joan Beltran IV.a Iraetari emandako mesedearen segidako auzi luzean 1490-VII-9an emandako behin betiko epaiaren gutun betearazlea igorri zuten. Bertan auzi osoaren gorabeherak labur ematen dira. Hain zuzen, gure “Agiritegian” zehatz-mehatz eman ditugu gorabehera horiek, XV. mendeko zenbaki hauek dituzten agirietan eman ere: 81, 87, 91, 92, 94-96, 98-106, 108, 111, 121-126, 154-158, 163-168, 172-180, 186 eta 188 (ikus [XV. m. 189] agiria).

18.4.2. Beduako jaunak eskatutako gutun betearazlea

1490-X-20an Valladolidtik *Errege Katolikoek* Zestoako, Gipuzkoako eta haien erreinuetako gainerako agintariei behin betiko epaiaren gutun betearazlea bidali zieten, Beduako Martin Santxez Martzanakoak eskatuta. Errege-kantzelaritzan auzia zuten apelazio-mailan Zestoako auzotar Martin Saez Martzanakoak



18.17. irudia.
Zestoa. Beduatxiki.

(Beduako jaunak) eta Bilboko auzotar Pedro Ibañez Basozabalgoak.

Auzia lehenbizi Zestoako alkate Joan Ibañez Ezenarrokoaren aurrean aurkeztu zuen Basozabal bilbotarrak, eta haren gorabeherak 18.3.2. atalean eman genituen (ikus [XV. m. 181] agiria). Basozabalek Martin Saezen auzi-gastuak ordaindu beharko zituen, Kantzularitzan behin betiko epaiaren eguna (1489-VII-6) arte egindakoak.

Martin Saezen prokuradoreak Pedro Ibañezek ordaindu beharreko auzi-gastuak tasatzea eskatu zien epaileei; baita gutun betearazlea eman ziezaiotela ere. Basozabalgoak Martzanakoari ordaindu beharreko auzi-gastuak 3.820 maraikoak ziren. Haiek ordaintzeko sei eguneko epea zuen bilbotarrak. Bestela ondasunak bahitu eta enkantean saldu egingo zizkioten, eta, ondasunik ezean, preso hartuko zuten. Halaxe edukiko zuten zor osoa ordaintzen zuen arte (ikus [XV. m. 192] agiria).

18.4.3. Martin Zugasti Martin Otxoa Sasiolakoaren zordun

Errege Katolikoek Gipuzkoako korrejidoreari (Joan Riberari) eta korrejidoreordeari (Rodrigo Vela Nuñez

Avilakoa batxilerrari) bi gutun bidali zizkieten Burgostik Debako Martin Otxoa Sasiolakoaren eskariz; bata 1490-VII-6an eta bestea 1490-VII-30ean. Martin Otxoak Martin Zugasti debarrari (gure ustez Arroakoari) eta honen emazteari maileguz urrezko florin eta dukatak eman zizkien. Hauek zorra ordaindu ez zutelako, Debako alkateak senar-emazteen etxea eta sagastia bahitu eta enkantean saldu egin zituen. Hala ere, zorraren erdia ere ez zuten ordaindu. Beraz, senar-emazteak preso hartu zituen, eta Martin Otxoarentzat lan egingo zuten zor osoa kitatu arte.

Orduan Gipuzkoako korrejidoreordeak agindua eman zion merioari Martin Zugastiren eta emaztearen ondasunak bahitzeko eta biak preso hartzeko; izan ere, Martin Ruiz Olasokoari eta haren lagunei fidantza batzuk zor zizkieten. Sasiolakoak zioenez, Olasokoari zorra askoz ere geroago egin zioten, eta presoak haren mende utzi behar zituzten, lehenbizi zor zaharrena ordaindu arte. Korrejidoreordeari horixe eginaraztea eskatu zien Martin Otxoak errege-erreginei, eta hauek gutuna bidali zioten korrejidoreordeari. Honek Martin Ruiz Olasokoaren eta Zugastiren artean auzia zintzilik zegoela erantzun zuen, baina, beste gutun baten bidez, *Errege Katolikoek* Martin Otxoa Sasiolakoaren aldeko erabakia bete zezala agindu zioten (ikus [XV. m. 187] agiria).



18.18. irudia. Arroako Zugastiaundi baserria.

18.4.4. Zestoako Joan Martinez Zabalakoa probestua kondenaturik

Errege Katolikoek Valladolidtik 1490-IX-18an gutun betearazlea bidali zieten Gipuzkoako agintariei eta haien erreinuetako gainerakoei, Zestoako Joan Martinez Zabalakoa probestuak Azpeitiko Pedro Perez Bikuñakoa batxilerrarekin zuen auziaz.

Iñigo Ruiz Etxeberrikoa alkate zenean (1483an), Zumaiako (1483an Zestoako) Martin Ibañez Arteaga-koak eskatuta Joan Martinez probestuari agindua eman zion Azpeitiko Joan Isurolari ondasun batzuk bahitu, saldu eta Martin Ibañezi zorra ordain ziezaion.

Orduan probestuak, Joan Isurolaren ondasunak bahitu ordez, Pedro Perez Bikuñakoa batxilerrarenak bahitu zituen: uztarriko zortzi idi eta 137 barra burdina. Bikuña batxilerrak auzia jarri zuen, eta argitu egin zen idiak eta burdinak batxilerrarenak zirela (eta ez Isurolarenak). Ondorioz, Zestoako alkate Martin

Aspek (1484an) epaia eman zuen, idiak eta burdinak batxilerrari itzultzea aginduz. Joan Martinez probestuak, ordea, ez zituen itzuli.

Bikuñak Errege-kantzelaritzan auzia ipini zion Zestoako probestuari, Martin Asperen epaia bete zedin. Hauek eskatu zizkion: 137 barra burdina (edo 27.000 marai), 8 idi (edo 6.000 marai), 5.000 marai izandako kalte eta auzi-gastuengatik, eta handik aurrera egin zituen auzi-gastuak.

Probestuak ez zuen erantzunik eman, eta Kantzelaritzako epaileek bi aldeei 50 eguneko epea eman zieten beren frogak eta testigantzak aurkez zitzaten. Epe hura igaro zenean epaileek batxilerraren aldeko erabakia hartu eta argitaratu egin zuten.

Joan Martinez zestoarrak epaiaren aurkako arrazoiak jakinarazi zizkien epaileei. Idiak Joan Isurolarenak omen ziren, eta gero isilpean eskuz aldatuko zituzten maltzurkeriaz, Isurola Bikuñakoaren koinatua zelako. Gainera, probestuak errurik izan gabe, bi

idi hil egin ziren. Arrazoi haiek eta beste zenbait auzia hasi zenean aurkeztekoak ziren, baina epaitegi-ko eskribauak orduan aurkeztu beharrik ez zegoela jakinarazi zien. Beraz, arrazoi haiek aintzat har zitzatela eskatu zien probestuaren prokuradoreak epaileei.

Epaileek behin betiko epaia eman zuten, berriz ere batxilerraren alde eta Zestoako probestuaren aurka. Bederatzi eguneko epean sei idi itzuliko zizkion Zabalakoak (edo 1.750 marai idi bakoitzagatik), eta idi haiek 1484-VII-28az gero (Aspe alkatearen epaiaz gero) sortu ahal izan zuten etekina ere bai. Horrez gain, hildako bi idien okelaren eta larruen balioa (2.000 marai) itzuliko zion, eta batxilerraren auzi-gastuak ere probestuak ordainduko zituen.

Joan Martinez Zabalakoak eskea egin zuen epaia deusezta zezaten. Idiak argalak eta zaharrak omen ziren, eta bakoitzak 1.000 marai ere ez omen zuen balio. Beste arrazoi batzuk ere azaldu zituen. Orduan epaileek probestuari aukera eman zioten 50 eguneko epean azkeneko arrazoiak froga zitzan. Lehen 25 egunetan fidatzaileak ipiniko zituen, 2.000 maraiko zigorra, ezartzen bazioten, ordain zezaten.

Epea igarota, Joan Martinezek ez zuen testigantzarik aurkeztu, eta prokuradoreak horretarako izandako arrazoiak azaldu zituen. Batxilerraren prokuradoreak zioenez, auzia maltzurkeriaz luzatu nahi zuten aurkariek.

Epaileek, berrikuspen-mailan, behin betiko epaia eman zuten, lehengoa berretsiz. 3.419 marai ere ordainduko zizkion Zabalakoak Bikuñakoari auzi-gastuengatik. Bederatzi eguneko epea zuen Joan Martinezek epaia betetzeko. Bestela ondasunak bahitu eta enkantean saldu egingo zizkieten, eta, ondasunik ezean, preso edukiko zuten zor osoa ordaindu arte (ikus [XV. m. 190] agiria).

18.4.5. Lope Fernandez Zumaiakoa Joan Santxez Beroikakoarekiko zordun

1490-X-1ean Zumaian, Lope Fernandez Zumaiakoaren jauregian, Joan Santxez Zumaiakoa eskribauaren eta lekukoen aurrean, Bizkaiko Errigoitiko Joan Saez Beroikakoa eta Lope Fernandez Zumaiakoa elkartu ziren. Joan Saez errigoitiarraren Pedro seme zenak Lope Fernandezi urrezko 120 dukat eman zizkion honek premia izan zuenean, eta zumaiarrak bere burua eta zituen ondasun guztiak behartu zituen 1491. urteko maiatzerako, Mendekoste egunerako, zor hura osorik ordaintzera.

Lope Fernandezek zordun gisa zituen aldeko lege eta eskubide guztiei uko egin zien, Joan Saez Beroikakoaren mesedetan. Lekuko hauek izan ziren: Fortun Beroika (Joan Saezen semea), Joan Eibar (Lope Fernandezen morroia) eta Pedro Muxika bilbotarra (ikus [XV. m. 191] agiria). Obligazio-agiri hura gero



18.19. irudia. Aizarnako Zabala baserria.

Zestoako Altzolarats jauregiko Fernando Gebararen eskuetara pasatu zen.

18.4.6. Joan Akertza eta Debako Kontzejuko hauteskundeak

1490-XII-12an Valladolidtik *Errege Katolikoek* gutun betearazlea bidali zieten Debako agintariei, Gipuzkoakoei eta haien gainerako erreinuetakoei. Errege-kantzelaritzan auzia zuten Debako Kontzejuak bertako Joan Akertza (Arroakoa), Joan Leizaola, Joan Erlete, Martin Arakistain (Arakeristain), Pedro Artzuriaga (arroarra), Lope Erkisketa (arroarra) eta beste hainbat auzotarrekin. Joan Akertza besteen ordezkari gisa Joan Perez Plazaolakoa alkatearen aurrean aurkeztu zen, 1489-X-2an, eta agiria utzi zion. Hark zioenez, urte hartako iraileko San Migel egunez hiribilduko alkatea eta ofizialak aukeratzera bildu ziren. Joan Akertzaren taldean 120 auzotar ziren, eta haiei adostasuna eskatzea nahi zuten, ohiturari eta hiribilduko Ordenantzei jarraituz. Alkateak eta ofizialek, ordea, ez zituzten Ordenantzak eta ohitura bete.

Batez ere bi zinegotzi hautatu ziren gaizki, haien taldekoak ez zeudelako. Beraz, aurka azaltzen ziren, eta apelatu egin zuten. Joan Perez alkateak erantzun egin zien, bere arrazoiak emanaz.

Orduan Joan Akertzaren taldeak Martin Santxez Lasturkoa prokuradorearen bidez auzia ipini zuen Errege-kantzelaritzan. Alde bakoitzak bere arrazoiak azaldu zituen, aspaldi-aspalditik hiribilduko Kontzejuko karguetarako aukeraketa nola egiten zuten adieraziz. Auzotarren erroldan milakoak (gastuak auzotarrek ondasunen proportzioan ordaintzeko) ongi banatzeko ere arazoak zituzten.

Alde bakoitzak bere epeen barruan frogak eta testigantzak aurkeztu zituen, eta, ondoren, epaileek erabakia hartu zuten. 1489ko San Migel egunez karguhautaketa ondo egin zen, baina handik aurrera herriko edo inguruko zenbait pertsona trebek aukeraketan aurrean egon beharko zuen. Auzi-gastuak Joan Akertzaren taldeak ordainduko zituen. Hauek ziotenez,

Kontzejukoek Pedro Idiakaitz probestuarekin auzitan 350.000 marai baino gehiago gastatu zituzten, eta preso egonak ziren. 600.000 maraiko gastuak ez omen zituzten argitu.

Kontzejukoen arabera, Errege-kantzelaritzan emandako epaia zuzena zen. Gastuak mairuen aurka-ko gerrara, Britainiara eta abarretara bidalitako oinezko soldaduak ordaintzeko izan ziren. Behin betiko epaian Joan Akertzaren alde kondenuatu egin zuten 17.630 maraiko auzi-gastuak ordaintzera. Bederatzi eguneko epean ordaintzen ez bazuten, ondasunak bahitu eta enkantean saldu egingo zizkieten. Bestela preso edukiko zituzten zor osoa ordaindu arte³¹.

Debako Kontzejuak beste auzi bat Pedro Idiakaitz probestuarekin zuen, honen sariei buruz, eta haren harira *Errege Katolikoek* 1490-VIII-16an Kordobatik gutun betearazlea bidali zuten. Auzia Gipuzkoako Joan Ribera korrejidorearen eskuetatik Errege-kontseilura joan zen. Auziaren gorabehera guztien laburpena egiten du gutunak, eta azkenean epaia Pedro Idiakaitz probestuaren aldekoa izan zen. Diego Gonzalez de la Sal batxiler eta epaileak ezarritako kopuruetan oinarrituko ziren probestuari ordaintzeko. Idiakaitzek gehienez zenbat kobratu behar zuen zehaztu zuten. Auzi-gastuak (30.000 marai) Kontzejuak ordainduko zizkion probestuari³².

18.4.7. Gipuzkoako Batzarrak, Ermandadea, etab.

Gipuzkoan 1490. urtean lehen Batzar Nagusiak Errenterian izan ziren maiatzean. Anton Gonzalez Andiakoa (Domenjon zenaren semea) izan zen eskribau fiel²⁵. Hilaren 6an Arrasateko hiribilduak gastuak banatzeko egindako eskeari baiezkua eman zioten. Zortzi sukalderena ez eta beste gainerako guztia barkatu zioten Arrasateri (aurreko urtean erre egin zelako) 30 urterako.

Gero, urriaren 28an Getarian bildu ziren Batzar Nagusiak, eta bertan Joan Lopez Zarauzkoak legeztatut egin zituen errege-pribilegioak; bata Arrasatek



18.20. irudia. Arroako Akertzaberri.

eskatutakoa eta 1490-IX-30ean Kordoban emana, eta bestea Diego Martinez Arabakoak 1490-X-22an Gasteizen emandako ahalordea. Dirudienez Batzar Bereziak Azkoitian bildu ziren 1490-II-15ean, Gipuzkoako Joan Ribera korrejidorearen ordezkero Rodrigo Vela Nuñez batxilerraren zuzendaritzapean⁵.

1490-III-27an Sevillatik *Errege Katolikoek* bidalitako agirian ziotenez, Gipuzkoako ermandade-alkatek inguruko lurraldeetan ere jazar zitzaketan gaizkileak, hauek Probintziatik kanpo joaten zirenean¹. Egun eta leku beretik beste zedula bat bidali zuten, agindua emanez, Probintzian moneta erreinuko gainerako herrietan bezala erabil zezaten.

Gipuzkoan, garai hartan, jauntxoak beren ondasun eta mailari eusten saiatzen ziren. Haietako bat Ber-

nardino Lazkano zen, Idiazabalgo San Migel elizako patroia. Gorabeherak zituen Kontzejuarekin, eta haiei amaiera emateko ituna Kordoban 1490-VI-23an egingandako errege-agiriz onetsi zen⁵.

Oñatiko kondea, Iñigo Belez Gebarakoa, zen beste jauntxoetako bat. Leongo erreinuko agintari nagusi izanik, bere kargua 1490. urtean Alonso Pimentel jaunaren esku utzi zuen. 1490-V-10ean onetsi zuten errege-erreginek, Sevillan egingandako agiriaz, aldaketa hura²⁹.


Gartzia Lopez Arriarangoa, Arriarango jauna, itsas armadako kapitaina zen, eta 1490-III-18an Medinan Errege-kontseiluari haren itsasontzi bat bahi zezatela eskatu zion, lapurtu egin ziotelako. Urte bereko maiatzean Jerez hiriko justizia-gizonei eskea egin zien

bahituta zeuzkan mairu batzuk zain ziezazkioten. Gartzia Lopez Arriarangoa kapitaina Donostiako auzotarra zen, eta 1490-VIII-12an Kordobatik Errege-kontseiluak baimena eman zion Donostia erre ondoren altueraz Ordenantzek ziotena bete gabe erakitako etxea zutik mantentzean⁵.

Ondarroan ere, itsasgizon ugari bizi zen, eta 1490. urtean errolda egin zuten, Migel Ibañez Arantzibikoa alkate zela, gastuak banatzeko pertsona bakoitzari zenbat milako zegozkion erabakitzeko. Zenbat eta

ondasun gehiago eduki, hainbat eta milako gehiago egozten zizkioten jabeari. 1490. urteko Ondarroako errolda hartan Arroako eta Zestoako batzuk ere azaltzen dira. Pedro Arrona zen herriko aberatsenetako bat (1.425 maraiko maila). Joan Hurtado Zestonak 800 maraiko maila zuen, eta Ana Arronak 1.200 maraikoa³³. Hiru pertsona hauek jatorriz Zestoa edo Arroakoak ziren, gure ustez. Arrona deitura Arroakolakoek zuten, eta Pedro hau ontzi-maisua zen, 1496an *Errege Katoliko*en alaba Joana Eroa Laredotik Flan-desera ezkontzera eramantzen zutenetakoa.

18.21. irudia. Beasain.
Arriarango eliz ataria.



18.5. HAMAZORTZIGARREN KAPITULUKO OHARRAK

¹ ORELLA UNZUE, J. L. *Instituciones de Gipuzkoa en el Libro de los Bollones*, in *El Libro de los Bollones*. Iturriak, 1. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (85, 170, 171, 184, 193. or.).

² RUIZ FERNANDEZ, A. eta AGIRRE GARTZIA J. *Euskal Herriko Erdi Aroaren historiako dokumentu idatzi eta grafikoen iruzkin-ereduak*. UEU. Bilbo, 2006. (191. or.).

³ TENA GARCIA, M. S. *La sociedad urbana en la Guipúzcoa costera medieval: San Sebastián, Rentería y Fuenterrabía (1200-1500)*. Donostia, 1997. (250, 374. or.).

⁴ ROLDAN GUAL, J. M.. *Villas asiento de las Juntas Generales y tribunal del corregimiento de Guipúzcoa (hasta 1550)*, in *Las Juntas en la conformación de Gipuzkoa hasta 1550*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (42, 63. or.).

⁵ ORELLA UNZUE, J. L. *Instituciones de Gipuzkoa y Oficiales Reales en la Provincia (1491-1530)*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (101, 106, 107, 116, 136-138, 140, 141, 284, 286, 289, 324, 327. or.).

⁶ XX. Zaragoza. Simancasko Artxibo Orokorra. Registro General del Sello. XII-1487. 151. folioa.

⁷ ARTETXE, J. Elcano. Colección Austral, 1505. alea. Espasa-Calpe, S. A. argit. Madril, 1972. (32. or.).

⁸ ALBIZU, X. eta beste. *Euskal Herriko Historia I. (Historiaurretik Nafarroaren konkista arte)*. Gaiak argit. Donostia, 2004. (154. or.).

⁹ OTAZU, A. eta DIAZ DE DURANA, J. R. *El espíritu emprendedor de los vascos*. Silex argit. Madril, 2008. (80. or.).

¹⁰ ARTAZUBIAGA, B. *Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa*. Oñati. Zestoako eskribautza. 2/001605 paper sorta.

¹¹ XX. Valladolid. Valladolidko Kantzelaritzako Artxiboa. Pleitos civiles. Escribanía de Zarandona y Wals. Pleitos fenecidos. 486/3. (82, 83. or.).

¹² XX. 1488-VII-1. Azkoitia. Loiolako Artxibo Historikoa. Floreaga familiako fondoa; 1. agiria. 18-996.

¹³ XX. 1488-IX-20. Valladolid. Simancasko Artxibo Orokorra. Registro General del Sello. IX-1488. 4. folioa.

¹⁴ XX. 1488-XII-8. Valladolid. Simancasko Artxibo Orokorra. Registro General del Sello. XII-1488. 43. folioa.

- ¹⁵ XX. 1488-XII-10. Valladolid. Simancasko Artxibo Orokorra. Registro General del Sello. XII-1488. 100. folioa.
- ¹⁶ XX. 1488-XII-21. Valladolid. Simancasko Artxibo Orokorra. Registro General del Sello. XII-1488. 193. folioa.
- ¹⁷ LABAIRU GOIKOETXEA, E. Historia General del Señorío de Bizcaya. III. alea. La Gran Enciclopedia Vasca argit. Bilbo, 1968. (415, 433. or.).
- ¹⁸ DIEZ DE SALAZAR, L. M. Ferrerías guipuzcoanas. Aspectos socio-económicos, laborales y fiscales (siglos XIV-XVI). Donostia, 1977. (355. or.).
- ¹⁹ XX. 1489-II-10. Medina del Campo. Simancasko Artxibo Orokorra. Registro General del Sello. II-1489. 253. folioa.
- ²⁰ XX. 1489-II-11. Medina del Campo. Simancasko Artxibo Orokorra. Registro General del Sello. II-1489. 250. folioa.
- ²¹ XX. 1489-II-?. Simancasko Artxibo Orokorra. Registro General del Sello. II-1489. 272. folioa.
- ²² XX. 1489-III-20. Medina del Campo. Simancasko Artxibo Orokorra. Registro General del Sello. III-1489. 412. folioa.
- ²³ XX. 1489-V-26. Jaen. Simancasko Artxibo Orokorra. Registro General del Sello. II-1489. 253. folioa.
- ²⁴ XX. 1489-XII-?. Simancasko Artxibo Orokorra. Registro General del Sello. XII-1489. 221. folioa.
- ²⁵ ELOSEGI, J. *Juntas Generales y Particulares de Guipúzcoa. Índice de las celebradas en los siglos XIV y XV*, in Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País. XXXIV. urtea. 3 eta 4. koadernoak, 1978. (558, 559. or.).
- ²⁶ ARTOLA, M. Donostiaren historia. Nerea argit. Donostia, 2001. (25, 26, 32, 33, 68. or.).
- ²⁷ AROZENA, F. Guipúzcoa en la Historia. Minotauro argit. Madril, 1964. (115. or.).
- ²⁸ DIEZ DE SALAZAR, L. M. eta AIERBE, R. M. *Autoria y contenido del Libro de los Bollones*, in El Libro de los Bollones. Iturriak 1. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (145, 146. or.).
- ²⁹ AIERBE IRIBAR, R. M. Historia del condado de Oñate y señorío de los Guevara (S. XI-XVI). I Estudio. Gipuzkoako Foru Aldundia, 1985. (200, 202, 206. or.).
- ³⁰ HIDALGO DE CISNEROS, C. eta beste. Colección documental del Archivo Municipal de Durango. Tomo II. Fuentes documentales medievales del País Vasco, 21. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1989. (405, 415, 416, 424. or.).

³¹ HERRERO, V. J. eta BARRENA, E. Archivo Municipal de Deba (1181-1520). I. Fuentes documentales medievales del País Vasco, 123. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 2006. (297-318. or.).

³² XX. 1490-VIII-16. Kordoba. Simancasko Artxibo Orokorra. Registro General del Sello. VIII-1490. 186. folioa.

³³ ENRIQUEZ FERNANDEZ, J. Colección documental de los Archivos Municipales de Guerricaiz, Larrazúa, Miravalles, Ochandiano, Ondarroa y Villaro. Fuentes documentales medievales del País Vasco, 31. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1991. (153, 173, 185, 219. or.).